

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**

POLITIKA ZIENTZIAK ETA KUDEAKETA PUBLIKOA  
IKASTURTEA 2018/2019

DEMOKRAZIA PARTE HARTZAILEA ETA INTERSEKZIONALITATEA: LIZARRAKO  
PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK AZTERGAI

EGILEA: Nerea Blanco Aramendia.  
ZUZENDARIA: Jone Martínez Palacios.

Data, 2019ko maiatzaren 22a

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

“Gratu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”.

## **Laburpena**

Ikerlan honetan, gero eta ugariagoa den demokrazia parte hartzailean, jazotzen diren bazterketak interseksionalitatearen ikuspegitik aztertu dira. Horretarako, Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak froga enpiriko modura erabili dira. Bertako agente dominatuak nahiz dominatzaileak zein diren aztertu da, interseksionalitatea tresna gisa ulertuta. Era berean, Jone Martínez-Palaciosek bazterketa problematizatzeko eta ikertzeko proposatutako koadroa marko kontzeptualean azaldu da, eta analisia koadro horretaz baliatuz burutu da.

## **Hitz gakoak**

Sakontze demokratikoa, parte hartzea, interseksionalitatea, dominazio matrizea, botere esparrua, esparru politikoa, *habitus-a*, *habitus* parte hartzailea, *habitus* outsidersa, kapital kulturala, kapital ekonomikoa, kapital soziala, objektibatua, erantsia.

## **Hitz kopurua**

Ikerlanean: 14.845

Eranskinetan: 7.387

Osoara: 22.232

**AURKIBIDEA:**

<b>1. SARRERA</b> .....	3
<b>1.1. Helburu orokorra</b> .....	4
<b>1.2. Helburu zehatzak</b> .....	4
<b>2. MARKO KONTZEPTUALA</b> .....	6
<b>2.1. Sakontze demokratikoa</b> .....	6
2.1.1. Demokraziaren eta parte hartzearen instituzionalizazioa.....	6
2.1.2. Parte hartze elitista eta baztertua.....	7
<b>2.2. Interseksionalitatea</b> .....	8
2.2.1. Interseksionalitatea tresna gisa.....	8
2.2.2. Dominazio Matrizea.....	10
2.2.3. Botere esparrua eta esparru politikoa.....	11
2.2.4. <i>Habitus</i> -a.....	12
2.2.5. Kapitalak.....	13
2.2.5.1. Kapital kulturala.....	14
2.2.5.2. Kapital ekonomikoa.....	14
2.2.5.3. Kapital soziala.....	14
2.2.6. Objektibitatea eta erantsia.....	15
2.2.7. Nola ikertu.....	15
<b>3. METODOLOGIA</b> .....	17
<b>3.1. Gerturatze kualitatiboa</b> .....	17
<b>3.2. Gerturatze kuantitatiboa</b> .....	17
<b>3.3. Hipotesiak</b> .....	20
<b>4. LIZARRAKO PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK</b> .....	22
<b>4.1. Lizarrako egoera instituzionala</b> .....	22
<b>4.2. Dispositibo parte hartzailearen deskribapena</b> .....	22
<b>4.3. Proposatutako marko interpretagarria bazterketa ikertzeko</b> .....	25
4.3.1. Botere esparruaren barruan, partaidetzazko dispositiboak igortzen diren esparru politikoen kokapena ikertzea.....	25
4.3.2. Esparru politikoen barne egitura aztertzea agenteak, instituzioak eta osatzen duten produktuak, jokatzen duten kapitalak eta esparruan esanahia izateko behar den <i>habitus</i> -a.....	26
4.3.2.1. Agente sozialak eta agente teknikoak.....	26
4.3.2.2. Instituzioak osatzen duen produktua.....	42
4.3.2.3. Jokatzen duten kapitalak.....	43
4.3.2.4. Esparruan esanahia izateko behar den <i>habitus</i> a.....	44
4.3.3. Kokapen hauek betetzen dituztenen <i>habitus</i> -en sorreran inguruan hausnartzea.....	44
4.3.4. Dispositiboaren <i>habitus</i> parte hartzaileak duen Dominazio Matrizearen ardatzak identifikatu.....	45
4.3.5. Dominazio Matrize ezberdinek maila biografikoan, taldekoan eta instituzionalean eragiten duten moduak ikertu eta erresistentziak identifikatu.....	45
<b>5. ONDORIOAK</b> .....	47
<b>6. PROPOSAMENA</b> .....	52
<b>7. BIBLIOGRAFIA</b> .....	57
<b>8. ERANSKINAK</b> .....(beste dokumentuan atxikirik)	

## 1. SARRERA

Ikerlanean azalduko den moduan, demokrazia sakontze horretan, parte hartzea instituzioetan indar handia hartzen ari da (della Porta, 2017; Martínez-Palacios, 2017a eta Martínez-Palacios, 2017b). Bide horretan, bazterketak jazo dira, parte hartzeko eredu elitista bat ezarriz, modu inplizituan zein esplizituan izan daitekeena (Martínez-Palacios, 2017b). Honek sortzen didan kezkatik abiatzen da lan hau; parte hartzearen izenean, zenbait bazterketa erreproduzitzen eta indartzen ari direlako. Izan ere, “berrikuntza demokratikoa” kontzeptuaren atzean, nagusiki parte hartzen duen sexu (*Participations 2/2015*; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017b:54), arraza, adin eta klase-sozial dominante bat ezkututzen da (Martínez-Palacios, 2016; hemen aipatuta: Jone Martínez-Palacios, 2017b). Hala, parte hartzearen eta sakontze demokratikoaren izenean, botere-esparruan kokapen dominante bat dutenei bozgoragailua ematen zaie, ahots horiek gainordezkaritza lortuz, eta beraz, bazterketak erreproduzitzen.

Aipatu berri den legez, parte hartzeak indarra hartu du instituzioetan; hau praktikan jartzeko modu aunitz daude; baina instituzioetan parte hartzerako dispositibo arrakastatsuen partaidetzazko aurrekontuak dira. Horren adierazle gisa Euskal Herriko udalerrri anitz ditugu: Gipuzkoako Alegia, Donostia, Hernani eta Bizkaiko Dima, bestek beste (Rafael Ajangiz eta Asier Blas, 2008). Bestalde, Hego Amerikan aurrekontuen inguruko inbertsioetan oinarritu da herri parte hartzea, horren adibiderik adierazgarriena Porto Alegreko partaidetzazko aurrekontuak ditugu (Joan Font, 2001)<sup>1</sup>. Beraz, ikerlan honen frogaren enpiriko modura, Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak hartuko dira; zeinetan deliberaziorako esparrurik ere ez dagoen. Froga enpiriko honekin, agente parte hartzailearen profila zein den ikusiko da, zein gai planteatzen dituen eta zein kokapenetik. Horrela, dagoeneko ordezkariak duten ahotsak indartuz, eta ondorioz, bazterketak erreproduzitzen eta indartuz. Modu berean, prozesua diseinatzen duen agentearen profila zein den, eta nondik planteatzen duen dispositiboa aztertuko da.

Ikerlan honen helburua, beraz, herri partaidetza instituzionalizatzen den modura hurbiltzea da. Horrela, bazterketak instituzionalizatzen diren moduak identifikatzeko eta aztertzeko. Horretarako, interseksionalitatea tresnarik aproposena dela egiaztatu nahi da. Izan ere, honek, dominazioak elkar gurutzatzen diren ardatzak bezala ulertzen ditu; eta ez modu isolatuan. Ondorioz:

### 1.1. Helburu orokorra

Parte hartzearen instituzionalizazioan sor daitezkeen bazterketak interseksionalitatearen tresnarekin identifikatu eta aztertu.

### 1.2. Helburu zehatzak

- Prozesu parte hartzaileetan nagusitzen den esparru politikoa eta botere esparru dominatzailea zein den identifikatzea.
- Prozesu parte hartzaileek mantentzen duten *habitus* parte hartzailea zein den identifikatzea.

---

<sup>1</sup> Font, Joan (koord.) (2001). *Ciudadanos y decisiones públicas*. Barcelona: Ariel.

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

- Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan, interseksionalitatearen tresna praktikan jartzea eta partaidetzazko aurrekontuetan jazotzen diren bazterketak identifikatzea.

Lan honen atalei dagokienez, marko kontzeptuarean, bi esparru teoriko nabarmenduko dira: sakontze demokratikoa eta interseksionalitatea. Lehenengo atalean, arestian aipatutako legez, demokraziaren eta parte hartzearen instituzionalizazioa azalduko da. Ildo beretik, honek sortzen dituen bazterketak ere identifikatuko dira. Bigarren atalean, Patricia Hill Collinsek interseksionalitatearen kontzeptua<sup>2</sup> aztertuko da; hau gauzatzeko dominazio matrizea tresna gisa aurkeztuko da. Bestalde, esparruak eta *habitus*-ak dituzten arauak eta mugak identifikatuko dira (Bourdieu, 1981; hemen aipatuta: Jone Martínez-Palacios, 2017a). Modu berean, parte hartzeko beharrezkoak diren kapitalak ere definituko dira<sup>3</sup>. Atalari amaiera emateko, bazterketak identifikatzeko nola ikertu behar den azalduko da, hori da, Lizarrako frogaren enpirikoa aztertzeko erabiliko den eredua.

Horrela, beraz, demokrazia eta parte hartze instituzionalean, esparru politikotik abiatutako dispositiboek, esparru eta *habitus* dominante bat dutela azaltzen da<sup>4</sup>. *Habitus* dominante hori duten agenteek zein dispositiboa diseinatu dutenek, inolako hausnarketarik egiten ez badute, esparruaren arauak erreproduzitzen dituzte, bazterketak eraginez. Agente dominatzaileak, kapital kultural, ekonomiko, sozial jakin bat dute; horrek, esparruaren eta *habitus* parte hartzailearen arauak ezartzen laguntzen die. Hala izanik, baliabide horiek ez dituen agentea baztertua izaten da, dominatua, eta parte hartzeko zailtasun handiak izaten ditu. Horregatik, interseksionalitatea proposatzen da, honen inguruan hausnartzeko, eta horrela, dominazio forma guztiak identifikatzeko. Hala proposatzen baitu Patricia Hill Collinsek (2017) "The Difference That Power Makes: Intersectionality and Participatory Democracy" artikuluan. Honek, zapalkuntzak elkar gurutzatzen diren ardatzak direla azaltzen du; beraz, dominazioen aurka egiteko, ez dira modu isolatu batean jardungo balute bezala ulertu behar.

Amaitzeko, ikerlan hau aurrera eramateko bidean lagundu duten pertsona eta eragile guztiei eskerrak eman behar dizkiet. Hasteko, nire zuzendaria izan denari: Jone Martínez-Palaciosi; momentu oro gidatu nauelako, eta lana hobetzeko aholkuak eman dizkidalako. Bestetik, Lizarrako Udaleri esker onak, erraztutako informazio guztia errazteagatik. Azkenik, Lizarrako Udaleko Partaidetzako zinegotziari ere, bere anonimotasuna mantenduz, eskerrak eman behar dizkiot; informazioa helarazteagatik eta elkarrizketarako edota edozertarako bere prestutasuna agertzeagatik.

---

<sup>2</sup> Hill Collins, Patricia et al. (1995). "SYMPOSIUM. On West and Fenstermaker's "Doing Difference". *Gender & Society*, 9 (4), 491-513.

\_\_\_\_ (2017). "The Difference That Power Makes: Intersectionality and Participatory Democracy", *Investigaciones Feministas aldizkarian* 8 (1), 19-39.

<sup>3</sup> Bourdieu Pierre (1986). "Educational Transmission and Reproduction: The Forms of Capital" J. E. Richardson, *Handbook of Theory and Research for the Sociology of Education*. New Yorken: Greenwood. (241-258).

<sup>4</sup> Martínez-Palacios, Jone (2017a). "Reflexionar sobre la dominación. El uso de las teorías generales para el diseño de los procedimientos de profundización democrática", Jone Martínez-Palacios (koord.) *Participar desde los feminismos: ausencias, expulsiones y resistencias*. Bartzelonan: ICARIA (66-109).

## 2. MARKO KONTZEPTUALA

### 2.1. SAKONTZE DEMOKRATIKOA

#### 2.1.1. Demokraziaren eta parte hartzearen instituzionalizazioa

Asko ikertu da demokrazia parte hartzailearen eta sakontze demokratikoaren inguruan; Sebastián Linares (2017)<sup>5</sup>, Donatella della Porta (2018)<sup>6</sup> Carlos Álvarez eta Ernesto Ganuza (2003)<sup>7</sup> eta Alfredo Ramírez (2010)<sup>8</sup> besteak beste, esparru horretan aritu dira. Donatella della Portaren (2017) arabera, demokrazia parte hartzailearen oinarriak hurrengo hauek dira: ordezkartza printzipioari muga zorrotzak jartzen dizkio; oligarkiaren botere gisa ulertzen baita. Demokrazia parte hartzailea berdintasun erreala bilatu behar da; eta hori gauzatzeko baldintza egokiak sortu nahi ditu. Azkenik, demokrazia parte hartzaileak demokrazia zuzena bilatzen du; hots, erabakiak jendearengana gerturatu nahi ditu.

90eko hamarkadan parte hartzearen eta deliberazioaren ideiak sakontze demokratikoa lortzeko bitartekotzat hartzen dira. Horregatik, parte hartzerako eta deliberaziorako tresnak instituzionalizatu ziren. Modu berean, defizit demokratikoa ondorioztat eta berrikuntza demokratikoak honen erantzun gisa ikertzen hasi ziren. Horretaz gain, parte hartzearen teknikarien instituzionalizazioaren eta profesionalizazioaren (Bherer, L; Gauthier, M; Simard, L., 2017.)<sup>9</sup> hazkundera jazo zen (Jones Martínez-Palacios, 2017a).

“Parte hartze instituzionalaren “merkatu” baten existentzia dago (Nonjon, 2006; Hendricks eta Carson, 2008; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017:54) deliberazioaren eta parte hartzearen “kontsumo” ezberdina existitzen da. Gehiago parte hartzen duena, oro har, hezkuntza-maila altuagoa duena izaten da (Smith, 2009; Warren, 2009; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017:54); diru-sarrera handiak (Fung eta Wright, 2003: 26-34; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017:54); eta diskurtsoaren kode deserantsi eta arrazionalak kontrolatzen ditu (Blondiaux, 2008; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017b:54). Beraz, badakigu “berrikuntza demokratiko” gisa ulertzen dena, *sexu bat baduela* (*Participations 2/2015*; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017:54), baina ere bai, arraza bat, adin bat eta klase-sozial dominante bat du” (Martínez-Palacios, 2016; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017b:54).

Hala izanik, administrazio publikoak burutzen duen sakontze demokratikoa, “berrikuntzaren merkatura” bideratzen denez, baztertzaila izaten da. Bi arrazoi nagusitzen dira (Carson, 2008; Mazeaud eta Nonjon, 2018; Martínez-Palacios, 2019):

1. Estandarizazio elitista. Aurrez diseinatutako tresnak, “kapital global handiko elite zuri batek egiten ditu”.

---

<sup>5</sup> Linares, Sebastian (2017). *Democracia participativa epistémica*. Espainian: Marcial Pons.

<sup>6</sup> Della Porta, Donatella (2018). *Democracias. Participación, deliberación y movimientos sociales*. Buenos Airesen: Prometeo.

<sup>7</sup> Álvarez, Carlos eta Ganuza, Ernesto (2003). *Democracia y presupuestos participativos*. Bartzelonan: Icaria.

<sup>8</sup> Ramírez, Alfredo (2010). *Democracia participativa: la democracia participativa como profundización en la democracia*. Balentzian: Tirant lo blanch.

<sup>9</sup> Bherer, L; Gauthier, M; Simard, L. (2017). *The professionalization of Public Participation*. Nueva Yorken: Routledge.

2. “Demokraziaren bitartekarien hazkundera, merkatuaren konkurrentziaren logika da” (Jone Martínez-Palacios, 2017b: 58).

Bitartekari hori agente teknikoa da, prozesu parte hartzailearen diseinua egingo duena; eta horren arabera, neurri handiago ala txikiago batean, esparruan dauden dominazioak eta botere-harremanak erreproduzituko dituena (Lee, 2011<sup>10</sup> eta Mansbridge et al., 2006<sup>11</sup>). Agente teknikoa, hori ekiditen saiatu behar da; modu berean, agente guztien partaidetza bermatu behar du. Norbaiten parte hartzea oztopatzen badu, talde horren gainordezkaritza ekiditeko edota hitz egiteko aukeren birbanaketa egokia egiteko izan behar da. Izan ere, agente teknikoak, esparru politikoan duen kokapena isla lezake, bere arauak eta kode sozialak ezagutzen dituen talde dominatzailearen parte hartzeko aukerak eta baliabideak indartuz (Martínez-Palacios, 2017b).

Estandarizazioa aipatu dugularik, Emmeline Cooperrek eta Graham Smithek (2012:13; hemen aipatuta: Jone Martínez-Palacios, 2017b) diotenez, administrazio publikoek deliberaziorako tresnekin “estandarizaziorako joera” erakusten dute. Baina, maila normatiboan, lehen aipatutako demokrazia parte hartzailearen ezaugarriekin talka egiten du. Izan ere, barne-hartzearen printzipioa betetzeko, dauden errealitate anitz zein aunitzak aitortu behar dira; eta hauei irtenbide ezberdinak eman.

Aipatutako legeez, bazterketa ekiditeko desberdintasunak aitortu behar dira, eta baliabideak birbanatu (Fraser eta Honneth, 2006)<sup>12</sup> Leslie McCallek dioenez, errealitatearen desberdintasuna aitortzeko modu bat “konplexutasun intrakategorikoa” da. “Hau kategoriaz ezberdinen interseksioan kokatzen diren giza-taldeetan oinarritzen da; kategoriek beren bizitzetan interkonektatzen diren konplexutasuna ulertzeko” Leslie McCall, 2005: 1772-1800; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017b: 59).

### 2.1.2. Parte hartze elitista eta baztertua

Desberdintasun sozialen eraginez, gizartean eragile dominatzaileak eta dominatuak daude. Hala izanik, dominatzaileak arauak eta balioak ezartzen dituztenak dira; hauen bidez, zenbait ideia edota eskaera esparru publikotik aldentzen dituzte (Bachrach eta Baratz, 1986). Gainera, dominatuek, desberdintasun sozialak direla eta, dominatzaileek ezarritako arauak ikasteko zailtasunak izaten dituzte. Izan ere, zapalkuntza zenbait pertsonari gizarte egituretan komunikatzeko ikasi behar diren oinarriak ikasten oztopatzea eragiten duten “prozesu instituzional sistematikoetan” datza (Young, 2000: 156) (hemen aipatuta: della Porta, 2017).

Horrela, beraz, hausnartzen ez diren “dispositibo” parte hartzaileak martxan jartzen direnean; dominatzaileen joera lehenesten da; “ekialdeko, heteropatriarkal, klasista,

---

<sup>10</sup> Lee, Caroline (2011). *Five Assumptions Academics Make About Public Deliberation And Why They Deserve Rethinking*. Journal of Public Deliberation, 7,1,7. (On line) Eskuragarri hemen: <https://www.publicdeliberation.net/jpd/vol7/iss1/art7> [Kontsulta eguna: 2019/4/1].

<sup>11</sup> Mansbridge, Jane et al. (2006). “Norms of Deliberation. An inductive Study” Journal of Public Deliberation, 2,1,7. (On line) Eskuragarri hemen: <https://www.publicdeliberation.net/jpd/vol2/iss1/art7>

<sup>12</sup> Fraser, Nancy eta Axel Honneth (2006). *¿Redistribución o reconocimiento?*. Madril: Morata.

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzako aurrekontuak aztergai

arrazista eta kapazitista den mundua bezala ezagutzen dena” (Martínez-Palacios, 2017a: 102). Hauek, dominatuek (arrazializatutako pertsonak, emakumeak....) eraikitzen duten gutzia, sistematikoki gutxiesten dute. Beraz, “deliberazioaren esparruan, agenteen parte hartzearen kalitatea sexuak, kapital kulturalaren metatzeak, klase sozialak, arrazak, adinak eta aniztasun funtzionalak zehazten dute” (Fishkin, 2009: 33-4; Warren 2009, 6-16, Smith, 2009, 12; Fung, 2003, 26-34, Ibarra, 2008, 23; Santos, 1998, 21.2; hemen aipatuta: Jone Martínez-Palacios, 2017a:102). Horregatik, bazterketaren ontologia ulertzeko modu gehigarriak, autonomoak edo asimetrikoak alde batera uztea zentzuzkoa da (Collins, 2017).

## 2.2. INTERSEKZIONALITATEA

Botere-harremanen ondorioz, dominatuen ikuspuntuak isilarazten dira:

“Komunitatearen ideiak botere-harremanen dimentsio integral bat eraikitzen du; talde azpiratuen erresistentzia teorizatzeko oinarria, zein talde hauen barne dauden norbanakoen ekintza politikoa da. Bazterketa honek, aldi berean, arazoaren konponbide eraginkorra mugatzen du-arazo sozialengatik kaltetuen dauden pertsonen ikuskerak isilarazten direlako” (Collins, 2017: 23).

### 2.2.1. Interseksionalitatea tresna gisa

Ez dago interseksionalitatea zer den esateko definizio estandar bat, baina, oro har, puntu hauetako bat edo gehiago, tresna honekin lotzen dira:

“1- Arrazakeria, sexismoa, klase esplotazioa eta antzeko zapalkuntza-sistemak elkarri konektatuak daude eta elkar eraikitzen dira.

2- Desberdintasun sozialen konfigurazioak zapalkuntzen testuinguruan osatzen dira.

3- Arazo sozialen ikuskerek, aktore sozialak, testuinguru historiko eta sozial zehatzen botere-harremanen barruan kokatuak daudela islatzen dute

4-Zapalkuntzen interseksioan, norbanakoak eta taldeak, modu ezberdinean kokatuak daude. Fenomeno sozialen inguruan, ikuspuntu bereizgarriak dituzte” (Collins eta Bilge 2016:25-30; hemen aipatuta: Patricia Hill Collins, 2017:20).

Sirma Bilgek (2009:72; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017:59), <<Théorisations féministes de l’intersectionnalité>> liburuan, honela definitzen du interseksionalitatea: interseksionalitatea harreman sozialen konplexutasunera iristeko tresna heuristikoa bat da. <<Ikerketa interseksionala>> desberdintzapen kategoriak-konplexuak diren prozesu sozialetan sartuta daudenak ikertzen dituenari deritso; ikerketa maila ezberdinei, eta aldi berean, hauen arteko interakzioak galdekatzen dituenari (Martínez-Palacios, 2017b:59).

Beraz, Patricia Hill Collinsen eta Sirma Bilgen ezaugarriak eta definizioak uztartuz, esan genezake, interseksionalitatea arrazakerian, sexismoan, klase sozialean, orientazio sexualean... oinarritutako harremanen konplexutasuna, eta hauetan dauden botere harremanak ulertzeko tresna heuristikoa dela.

Patricia Hill Collinsen (1990a:227; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017b:65) arabera, “pertsonak zapalkuntzak hiru mailatan jasaten eta erresistitzen dituzte: maila biografikoan, arrazak, generoak eta klase sozialak markatutako testuinguru kulturalak



Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

sortutako talde edo komunitate mailan, eta instituzio sozialekiko erlatiboa den maila sistemikoan”.

Interseksionalitateak zapalkuntza mota bat beste edozeinen gainetik jartzea ekiditen du. Zenbaitetan, zapalkuntzak modu isolatuan ekingo balute bezala ikertu dira; hala, desberdintasuna arazotzat hartu izan da, desberdintasun horiek sortzen dituzten botere-harremanak iturburutzat jo beharrean (Collins, 1995).

Instituzioek, zapalkuntza zehatz bat modu zehatzean konpondu nahi dute; horrek ondorio latzak dakartza: esparruko dominatzaileek baliabideak eskuratzeko duten erraztasuna eta azpiratutako taldean dauden interakzioen gainean duten kontrola lausotzen du. Ondorioz, dominatzaileen ikuspuntuak azaleratzen dira eta azpiratuen ekintza politikorako gaitasuna oztopatzen da (Lynn Weber, 1995).

Patricia Hill Collinsek planteamendua ulertzeko, interseksionalitatea “tresna kontzeptual” gisa, alegia; bazterketaren konplexutasuna ulertzeko bi afera kontuan hartzen dituela jakin behar da. Lehena, boterea testuinguruaren arabera dinamikoa dela da, agente bera zapaltzailea, zapaldua eta zapaltzaile zapaldua izan daitekeelarik. Bigarrena, “botere esparruen arabera dominazioaren egiturek intersektatzen direla” da. Hala izanik, prozesuan parte hartzen duten agenteek (teknikoek zein sozialek) beren kokapen soziala agerian uzten dute (Collins, 1990: 225; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017b:64).

Baina, zergatik du garrantzia planteatzen den heuristika hori? Hasieran aipatutako legez, “dominazio boterearen markoa, botere-harremanen antolakuntza aztertzeko dispositibo heuristikoa bat da. Heuristika hau botere sistemak aztertzeko erabil daiteke (...). Heuristika ere, zapalkuntzekiko erresistentzia aztertzeko erabil daiteke” (Collins, 2017:26).

Dominazio boterearen heuristikak, azterketarako baliabideak errazten ditu. Batetik, “dominazio-boterearen markoa heuristikoa delako (...) zapalkuntzen interseksioaren inguruan baieztapen kausak, teorikoak egiten ditu” ez dago menderakuntza jakin bat beste bat baino garrantzitsuagoa denik; eta botere-harremanak dominazio bakar batean edo elkar gurutzatzen direlarik azter daitezke (Collins, 2017:26-27). Bestetik, heuristikak dominazioen konplexutasuna aztertzen du, sinpletasuna edota dominazioak afera isolatu gisa ulertzea baztertzen duelarik (Collins, 2009; hemen aipatuta: Collins, 2017).

Egitura soziala “dinamikoa” eta “elkarrekikoa” da (Howard Winant, 1995:504); beraz, testuinguruaren arabera, agente bat dominatzailea, eta aldi berean, dominatua izan daiteke (Collins, 1990; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017b). Horregatik, unibertsal gisa hartzen diren teoriak, dominatzaileak ordezkatzeko dituzten teoria zehatzak izaten dira (Collins, 2017).

Interseksionalitatea, demokrazia parte hartzailearen modura, merkaturatzeko saiakerak egon dira; bertatik, agente azpiratuak baztertu nahian. Baina biak “justizia soziala bilatzen duten proiektuak dira”. Horren bila, “ekintza politikoaren eta oinarrian dauden gizarte mugimenduekin, arazoak konpontzen ditu eta praktikan jartzen da” (Collins eta Bilge 2016:63-87; hemen aipatuta: Collins, 2017:20). Horrez gain, interseksionalitateak politika

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

barne-hartzaileak aurrera eramatea errazten du; hortaz, demokrazia parte hartzaileari onura egiten dio (Collins, 2017). Izan ere, “Interseksionalitatearen enfasia zapalkuntza sistemetan dauden interakzioekiko, dominazio forma ezberdinek, bakoitzak bere energia sarea duela azaltzen du; botere dinamikaren interseksio matrize bat da”. Hala izanik, demokrazia parte hartzailea aztertzeke, interseksionalitatea tresna gisa proposatzen da. Botere harremanak, eta hauetan oinarritzen diren bazterketak elkar-ekiten aztertzeke (Collins, 2017:22).

### 2.2.2. Dominazio Matrizea

Demokrazia parte hartzailearen bazterketak identifikatzeko, interseksionalitatea pentsatzeko modu anitz daude. Baina, zenbait autore: Jone Martínez-Palacios, Javiera Cubillos edo Leticia Díaz<sup>13</sup> besteak beste, Dominazio Matrizearen bidez ikertzea proposatu dute.

Hala izanik, honakoa dio Javierak:

“Matrize honek, zapalkuntza sistema ezberdinak interakzioan, interdependentzian eta elkar eraikitzen daude; modu dinamikoan eta, are gehiago, modu kontraesnakorrean. Izan ere, zenbait talde zapaldu eta zapaltzailearen egoeran egon daitezke aldi berean (Afrikatik datozen gizonak; emakume zuri eta burgesak, esate baterako)” (Javiera Cubillos, 2015:123).

Patricia Hill Collinsek (2017:24) arabera, “dominazio politikoa; inperialismoaren, patriarkatuaren eta antzeko dominazio formen bidez, modu desberdinean antolatutako antzeko printzipioetan oinarritu daiteke”.

Aipatutako dominazio forma horiek, eta arrazakeria edota heteroaraua bezalako beste batzuk existitzen direla aipatu da. Kontuan izan beharrekoa da, interseksionalitateak adierazten duen gisara, dominazio forma hauek ez dutela modu isolatuan jarduten; elkar ekiten dutela baizik (Collins, 2017).

Patricia Hill Collinsek (2017) dominazio matrizearen gako batzuk azaltzen ditu: lehenik eta behin, dominazioa ez dela modu isolatuan etortzen, beste batzuekin duen interakzioarekin baizik etortzen dela aipatzen du. Hala ere, erresistentzia eta zapalkuntza, testuinguruaren arabera, modu ezberdinean antolatzen dira. Bigarrenik, botereak dituen sistemak, teoriarik, hori daudela aipatzen du. Baina testuinguru zehatzaren arabera, botere batzuk, beste batzuen gainetik lehenesten dira. Azkenik, zapalkuntzen interakzioan oinarritzen garenean, dominazioa eta erresistentzia koexistitzen direla eta, oro har, dauden konplexutasunak, erraztasun handiagoz ikus ditzakegula azaltzen du. Hau, ikuspegi interseksionalari esker da. Collinsek hasieratik, Dominazio Matrizea azaldu izan du, modu ezberdinetan baina xede berarekin. Horren adibide, 90eko hamarkadan idatzitako liburuak ditugu<sup>14</sup>

---

<sup>13</sup>Leticia Díaz hemen Dominazio Matrizeaz mintzo da: Díaz, Leticia (2017). *Género e interseccionalidad. Una revisión histórico-crítica*. [On-line], MAL-a. Canariasen: Universidad La Laguna. eskuragarri hemen: <https://riull.ull.es/xmlui/bitstream/handle/915/7309/Genero%20e%20interseccionalidad.%20Una%20revisión%20historico-critica..pdf?sequence=1&isAllowed=y> [Kontsulta eguna: 2019/4/4].

<sup>14</sup> Hill Collins, Patricia (1990). *Black Feminist Thought: Knowledge, Consciousness, and the Politics of Empowerment*. Londres: Routledge.

### 2.2.3. Botere esparrua eta esparru politikoa

Patricia Hill Collinsek, Dominazio Matrizea azaltzen duenean, dominazio forma ezberdinez ari da. Hori, teoria kritikoaren ikerketa askorekin bat egiten du. Besteak beste Pierre Bourdieuren ikuspuntu genetikoarekin; izan ere, ikuspuntu genetikoak, dominazio harremanen sorrera aztertzea ahalbidetzen du, bere genesis aztertzen duen neurrian. Botere esparruak osatzen dituztenak dominazio forma ezberdin horiek dira, elkar gurutzatzen direnak. Collinsek eta Bourdieuren elkarrizketarekin, interseksionalitatearen heuristikan sakondu daiteke. Izan ere, elkarrizketa honetatik, dominazio matrizearen dimentsio erantsian aztertzea posible izango da (Martínez-Palacios, 2019).

Hala izanik, Pierre Bourdieuk horrela definitzen du botere esparrua: “Botere esparrua agenteek eta instituzioek, esparru ezberdinetan dominatzailearen kokapena izateko beharrezkoa duten kapitala izatean, komunean duten botere-harremanen esparrua da” (Pierre Bourdieu, 1995: 319; hemen aipatuta: Jone Martínez, 2017a: 89).

Beraz, botere esparrua, agente ezberdinek partekatzen duten botere-harremanen esparrua dela dio Bourdieuk. Modu berean, botere-harreman hori dominazio kokapenetik dutela aipatzen du; hala, beraz, agente hauek, beren dominatzaile roletik, Collinsek aipatzen dituen dominazio forma horiek sortzen eta erreproduzitzen dituzte.

Esparru politikoari dagokionez, honela azaltzen du Pierre Bourdieuk: “bertan dauden agenteek produktu politikoak, arazoak, analisiak, kontzeptuak... sortzen dituzten esparrua da. Hiritarrak, kontsumitzaile gisa hartzen dira; hauek produkzio tokiekiko uruntasuna dutenez, gaizki ulertuak izatearen arriskua dute” (Pierre Bourdieu, 1981: 3-4; Jone Martínez, 2017a: 90).

Hurrengo paragrafoan azaltzen den gisara, esparruen osaera edo arauak zehazten dituztenak, botere-harremanak dira. Horregatik, hau, Collinsek planteatzen duen Dominazio Matrizearekin erabat lotuta dago. Izan ere, dominazio horietan oinarritzen dira, esparruak eta hauen mugak zein arauak zehaztuko dituzten botere-harremanak.

Esparru ororen arauen ezarpena botere-harremanean datza; sakontze demokratikoari dagokionez, “parte hartzearen eta deliberazioaren definizioak” dira zehazteke daudenak. Hala izanik, ohikoa izaten da, kontzeptu hauen inguruko ikuskera ezberdinek talka egitea. Halaber, ezin da ahaztu, norbanako edo agente<sup>15</sup> orok esparruan duen kokapenetik adieraziko dela; eta horretan saiatuko dela. Izan ere, “agente horren kokapena kapital sozialak, ekonomikoak edota kulturalak zehatz lezake; kapital horien esparruek ere, botere esparru horretan eragina izanik”. (Jone Martínez-Palacios, 2017a: 87).

---

\_\_\_\_\_ (1998). *Fighting Words: Black Women and the Search for Justice*. Minneapolis: University of Minnesota Press.

<sup>15</sup> Agente kontzeptua erabiltzean, Pierre Bourdieuk, esparru bateko norbanakoek, bertako arauak erreproduzitzeko interesa adierazten du. Hala izanik, lan honetan ere, asmo horrekin egingo da.

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

Horren harira, Martínez-Bascuñánek, honakoa aztertzen egon da urte luzeetan: “deliberazioaren eta parte hartzearen kontzeptu mugatuan oinarrituriko sakontze demokratikoak, arau batean (komunikaziokoa, gorputzekoa, jarrerakoa etab.) doitzen ez diren pertsona guztiak *esparru politikotik* baztertzearen arazoa” (Martínez-Bascuñán, 2012: 23; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017b: 54).

Partaidetzarako tresnak, esparruaren produktuak izanik, badaude zenbait kapital (hizkuntzarena esate baterako) esparruan balio handia dutenak. “Esparruan sarrerako eta irteerako arauak (adibidez, herri parte hartzearen hizkuntza eta gorputz kodeak, teorikoki unibertsalak direnak ezagutzea) eta genero arauak (zuhurtasuna edo ardura, adibidez) gurutzatzen dira”. Horrela, zenbait agenteren parte hartzea ekiditen edo mugatzen dute (emakumeena, arrazializatutako pertsonena edota aniztasun funtzionaleko pertsonena) (Martínez-Palacios eta Bach, 2016; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017b:61). Gainera, agente teknikoak, dispositibo parte hartzailea diseinatzeko duenak, bere iritziarekin (esplizituarekin zein implizituarekin) beste agenteen jarrerak baldintza ditzake (Martínez-Palacios, 2017b).

Horregatik, agente tekniko honen erronka, parte hartzaileek banako interesetatik, interes kolektiboetarako trantsizioa egitea da. Baina bide horretan, dominazioa ez jazotzea da erronka horren gakoa eta benetako zailtasuna (Mansbridge, 1990; 2004; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017a).

Kapital ezberdinek agenteak esparruan duen kokapena baldintzatzen dute:

“Agente baten kokapena esparru sozialean, dituen kapitalek baldintzatuko dute (...) Berrikuntza demokratikoko prozedurek, kapital hauen birbanaketa zuzena egiteko gaitasun handiagoa dute erabaki agregatiboetan oinarritutako boterea burutzeko beste eredu klasikoek baino” (Jone Martínez, 2017a: 91).

#### **2.2.4. *Habitus-a***

Azaldu den moduan, esparruak muga eta arau jakin batzuk ditu, horiek agente dominatzaileek zehazten dituzte; eta agente horiek *habitus* bat dute. Ondorioz, *habitus-a* ere esparrua zehazten laguntzen du. Hala izanik: “esparruak esparrua eraikitzen duten *habitus-ak* eraikitzen ditu; horrek ez du esan nahi erreprodukzio ziklo amaigabea denik” (Pierre Bourdieu, 1999: 8; hemen aipatuta: Jone Martínez, 2017a: 90).

Bourdieu *habitus-a* “antolaketa iraunkorren sistemak, egitura egituratzaile modura jarduteko prest dauden egituratutako egiturak” bezala definitzen du (Bourdieu, 1972:175; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017a:90).

##### **2.2.4.1. *Habitus parte hartzailea***

Agente teknikoaren profila Estatu Batuetan zein Europan, parte hartzearen inguruko goi-mailako ikasketak jaso dituztenek, kapital-kultural, ekonomiko eta sozial handiko pertsonak, zuriak, ezkertiarrek, ikasketa-maila altuko eta bataz-besteko soldataren gainetik dauden pertsonak osatzen dute (Martínez-Palacios, 2017b:58). Horrek, nahiz eta dominatzaileek zein dominatuek partaidetzazko demokraziaren alde agertu; parte hartzeko aukerak, eta bakoitzaren boterea zeharo ezberdina izatea eragiten du (Collins, 2017).

Hala izanik, parte hartzeko, nahiz eta idatziak ez egon, arau batzuk egoten dira: “komunikatzen jakin, argudioak zuzenki adierazten jakin, ahotsa erregulatu... (Martínez-Palacios, 2017:100). Euskal Herriko kasuan, honako hauek dira: “ahots tonu lasaia baina ziurra, argudio arrazional, konplexu eta sofistikuak erabili, diskurtso desapasionatua edo deserantsia jorratu (Young, 2000) eta objektiboa eta neutrala iruditu (Martínez-Palacios *et al.* 2017” (Young, 2000; Martínez-Palacios *et al.* 2017; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017b:62).

Euskal Herriko parte hartze instituzionalari dagokionean, esparru politikoan dominatzaileak direnak, “klase sozial ertain-altukoak, hezkuntza-maila altukoak, euskararekin harreman bivalentea dutenak, zuriak eta gizonak” dira. Jakinda, esparru politikoan dispositibo parte hartzaileak sortzen direla, *habitus* parte hartzailea, esparru politikoa edo instituzioak dominatzen dituztenen profil bera duen aztertu behar da (Martínez-Palacios, 2017b:66). Hala izanik, *habitus* dominatzailea duten agenteak izaten dira parte hartzeko eroso sentitzen direnak (Jone Martínez, 2017a).

Horretarako:

“dispositiboaren *habitus* parte hartzailearen Dominazio Matrizea identifikatu behar da. Euskal Herriko kasuan, *habitus*-a diskurtso deserantsi baten erabilera egokiak, gazteleraren zuzentasunak, ahoskera *outsider* ikusgarria ez duenak, argudiaketa teknikoan oinarritutakoak, (...) jarrera emotibo zein erlazional (...) nabarmenek ezaugarritzen badute; klase-sozial, hezkuntza-maila, hizkuntza, arraza eta genero Dominazio Matrizea dagoela adieraz lezake” (Martínez-Palacios, 2017b: 66).

#### 2.2.4.2. *Habitus outsider*

Esparru batean *outsider* izatea, *habitus-arekiko* ikusezina izatea da (Vanessa Ripio, 2015: 150; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017a). Esparru politikoaren *outsiderrak* “emakumeak, arrazializatutako pertsonak, aniztasun funtzionaleko pertsonak etab.” izaten dira (Martínez-Palacios, 2017a: 105). Hala izanik, “historikoki azpiratuak izan diren taldeen erresistentziak, politikaren testuinguruaren eta boterearen esanahiaren ikuskerarako angelu ezberdina eskaintzen du” (Collins, 2017:28).

Patricia Hill Collinsek azaltzen duenez:

“Zapaldutako kolektibitateek, talde identifikagarri gisa, gizartean, orokorrean, baino gehiago; sarritan, arraza komunitateen, komunitate etnikoen, erlijiosoen edota klasekoen mugen barruan norbanakotasunerako eta gizatasunerako esparruak eskaintzen dituzte” (Collins, 2017:28).

Parte hartzeari erreparatuz, beraz, *habitus outsiderra* egin daiteke:

“baliteke, bertan; *habitus outsiderrean*, deliberazioaren eta parte hartzearen testuinguruan, kapital kultural altua eta kapital sozial eta ekonomiko handia izateak ematen duen erosotasunekiko (pribilegioekiko) axolagabetasuna praktikan jarritz, sakontze demokratikorako prozesu barne hartzaileagoak baimentzen dituen iraultza sinboliko bat posible izatea” (Martínez-Palacios, 2017a:106).

### 2.2.5. Kapitalak

#### 2.2.5.1. *Kapital kulturala*

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzako aurrekontuak aztergai

Honela definitzen du Pierre Bourdieuk Kapital kulturala:

“Kapital kulturala hiru modutan existitu daiteke: egoera gorrian; adimenaren eta gorputzaren antolamendu iraunkorretan, esate baterako. Egoera objektibatuan, ondasun kulturalen logelan (margolanak, liburuak, hiztegiak, instrumentuak, makinak, etab.); zeinak teoria, problematika etab. hauen tankerak edo teoria edo kritiken burutzea diren. Eta egoera instituzionalizatuan, desberdindua izan behar den egoera objektibatua. Izan ere, hezkuntzaren prestakuntzan ikusten den gisara, kapital kulturaletik eratorzen diren ondasunak ematen ditu; zeinak hauek bermatzen dituela suposatzen den” (Pierre Bourdieu, 1986: 47).

Pierre Bourdieuren ustez (1986), testuinguruaren arabera, kapital kultural handiagoa edo txikiagoa lortuko du agenteak. Hau da, kapital ekonomikoarekin alderatuz, modu inkontziente batez, gizarteak eta klase-sozialak, gure kapital kulturala baldintzatuko du.

#### 2.2.5.2. Kapital ekonomikoa

Kapital mota guztien iturria ekonomikoa dela esan genezake; zuzenean ekonomikotzat hartzen ez diren kapitalek eraldaketa bat jasan dute, beren esparru zehatzean eragina izan dezaten (Pierre Bourdieu, 1986). Izan ere, kapitalista den gizarte batean, agentearen klase soziala zehatzeko balio du (Jone Martinez, 2017a).

Kapitalaren, eta beraz, honek gizartean duen mailaren erreprodukzioarako, eraldaketa oinarria da. Hala izanik, kapitalak beren eraldaketarako, eta beraz, erreproduzitzeko gaitasunaren arabera ezberdindu daitezke. Eta erreprodukzioak ekintza hori bera legitimatzeko bidea ematen die (Pierre Bourdieu, 1986).

#### 2.2.5.3. Kapital soziala

Pierre Bourdieuren arabera (1986:51):

“kapital soziala baliabide errealean edo potentzialen batuketa da; hauek ezagutzako eta elkarrekiko aitortzako harreman instituzionalizatuen (maila ezberdinetan) sare baten jabetzari lotuta daude. (...) Modu berean, izen komun baten ezarpenarekin sozialki instituzionalizatu eta berma daitezke (familia baten izena, klase batena, edo tribu batena edo eskola batena, alderdi batena etab.)”.

Kapital sozialaren erreprodukzioak sozializazioa behar du; “zenbat eta handiagoa izan agentearen kapitala (kulturala zein ekonomikoa) bere harreman batean metatutako kapital soziala ere handiagoa izango da (batez ere soziala, baina baita kulturala eta ekonomikoa ere)” (Pierre Bourdieu, 1986:52).

Horregatik, agente teknikoek parte hartzearen eta deliberazioaren eredu dominatzailearen sorreraren inguruko hausnarketa egiteko beharra dute. Bestela, kapitalen birbanaketa eta esparruaren arauen eraldaketa ez da posiblea izango. Horretarako, agente sozial dominatzaileen *habitus*-a zein den ikertu beharra dago. Talde dominatzaileak identifikatu behar ditu agente teknikoak; hitzak duena zein kapital dituen aztertu behar du. Bestela ezingo du menderakuntza hori desaktibatu, kapital horiek ematen baitizkiote. Izan ere, esparruan, jakina da, ahots guztiek ez dutela balio bera, ez baitute kapital sinboliko bera (Martínez-Palacios, 2017a). Ezin baita ahaztu ikerlan honen helburu nagusia instituzioetan gertatzen diren prozesu parte hartzaileetan jazotzen diren bazterketak modu interseksionalean identifikatzea dena. Horren bidez, bazterketak ere instituzionalizatzen baitira.

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

Sakontze demokratikorako prozesu baten baitan, hizkuntza kapitala (hitz egiteko eta adierazteko modua, diskurtsoa garatzeko gaitasuna) eta kapital politikoa (agente horren interpretazio politikoak, gizartean onarpena izateko gaitasuna) berebiziko garrantzia dute (Jone Martinez, 2017a).

### 2.2.6. Objektibak eta erantsia

Adimenaren edo egitura erantsiaren eta objektibatuaren artean bereizketa bat egin behar dugu. Batetik, ikasten den eta ezartzen den adimen eredua da erantsia. Bestetik, objektibak, errealitate sozialak irakasten diguna da. Beraz, egitura erantsia, azkenean, aitortza sozialak eratzen du, sinbolikoa edota lausoa da. Egitura objektibak, aldiz, Estatuak kodifikatutako eta bermatutakoak da; beraz, burokratizatutako egitura ere bada (Pierre Bourdieu, 1993).

Hala ere, egitura erantsia mantentzearen arrazoia, neurri batean, egitura objektibatuari zor zaio. Izan ere, egitura erantsia, sozialki “koherentea eta sistematikoa” dirudi; modu berean, egitura objektibakarekin adostuta dagoela dirudi. Bestalde, “legitimitatearen aitortza” bi egituren arteko adostasunean oinarritzen da (Pierre Bourdieu, 1993:15).

Kapital kulturala, bere egitura objektibatuan, modu koherente batean agertzen da, berezko legeak dituelarik. Hala ere, ezin da kapital sinbolikoa alde batera utzi; produkzio kulturalaren zein klase sozialen esparruetan arma gisa erabiltzen baita (Pierre Bourdieu, 1986).

### 2.2.7. Nola ikertu

Berrikuntza eta dispositibo demokratiko zein parte hartzaileak instituzionalizatzearen ondorioz, “berrikuntzaren merkaturak” sortu da. Beraz, lehen aipatu den moduan, bertatik sortzen diren bazterketak identifikatu behar dira; horretarako “marko interpretatibo konplexuak” behar dira (McCall, 2005; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017b:55).

Eman beharreko hiru pauso daude merkaturatze honek eragindako bazterketak eta botere-harremanak azaleratzeko:

“Lehenengo, martxan jarriko diren dispositibo parte hartzaileen esparru politikoaren kokapena; eta denborarekin duen garapena ikertu behar dira. Bigarren, esparruaren barne-egituraren analisia egin behar da: agenteak, instituzioak eta esparrua osatzen duten produktuak, jokatzen diren kapitalak eta esparruan esanahia izateko behar den *habitus*-a. Hirugarren, kokapen hauen okupatzaileen *habitus*-en hasieraren hausnarketa bat beharrezkoa liteke (Bourdieu, 1995:318; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017:62). Hemen, *habitus* parte hartzailearen (dominantearen) sorrera identifikatzea eta ikertzea posible litzateke. Eta honen eta berrikuntza dispositibo diseinatzen duen agente teknikoaren *habitus*-aren arteko bateratze edo desadostasunen inguruan hausnartzea interesgarria litzateke” (Martínez-Palacios, 2017b:62).

Bazterketa feminismotik irakurtzeko, hiru puntu hauek kontuan izan behar dira:

1- Bazterketa prozesuak *habitus*-etik etortzen dira.

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

2- Hezkuntza klase-sozialaren sistemaren erreproduktzioarako gakoa da.

3- Testuinguru arrazista eta patriarkal batean, arrazak zein generoak “koefiziente sinboliko negatiboa” dute (Bourdieu, 1998:116; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017b:63).

Jone Martínez-Palaciosek (2017b:67) honako taula proposatzen du, bazterketa problematizatzeke eta ikertzeko:

1.Taula. Proposatutako marko interpretagarriaren laburpena<sup>16</sup>

LEHENENGO ATALA. Demokrazia berritzailearen dispositiboak ikertu, botere esparru bezala.
<ul style="list-style-type: none"><li>• Botere esparruaren barruan, partaidetzazko dispositiboak igortzen diren esparru politikoaren kokapena ikertzea.</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Esparru politikoaren barne egitura aztertzea: agenteak, instituzioak eta osatzen dituzten produktuak, jokatzeko duten kapitalak eta esparruan esanahia izateko behar den <i>habitus-a</i>.</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Kokapen hauek betetzen dituzten <i>habitus</i>-en sorreraren inguruan hausnartzea.</li></ul>
BIGARREN ATALA. <i>Habitus</i> -aren Dominazio Matrizea ikertu.
<ul style="list-style-type: none"><li>• Dispositiboaren <i>habitus</i> parte hartzaileak duen Dominazio Matrizearen ardatzak identifikatu.</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Dominazio Matrize ezberdinek maila biografikoan, taldekoan eta instituzionalean eragiten duten moduak ikertu eta erresistentziak identifikatu.</li></ul>

Iturria: Jone Martínez Palacios. Egileak itzulia.

Gakoa beste mota bateko “instituzionalitatea” bilatzea da; horretarako “interseksionalitatearen eta esparruaren arteko eztabaida” beharrezkoa da (Martínez-Palacios, 2017b:67).

Ikerketa ongi egiteko:

“Konplexuena, eta agian, horregatik, premiazkoena, elkarriketa kontzeptuak eta epistemologikoaren elkartasun harremanak ezartzea da. Demokrazia parte hartzailearen ekarpenek, ikuskera interseksionalak ez desnaturalizatzeko. Hor, sakontze demokratikoaren inguruko ikerketa eta praktika oro, bere genealogia antiarrazistari eta erradikalki barne-hartzaileari kasu egitea komeni da” (Martínez-Palacios, 2017b:68).

<sup>16</sup> Jone Martínez-Palacios (2017b): “Exclusión, profundización democrática e interseccionalidad”, *Investigaciones Feministas aldizkarian* 8 (1), 67.



### 3. METODOLOGIA

Ikerketa lan honetarako bai gerturatze kualitatiboa eta bai kuantitatiboa erabiliko dira; izan ere, ikertzaile kaulitatiboek lortzen dituzten irudiak zehaztasun handikoak dira. Bestalde, ikertzaile kuantitatiboak kasu askoren artean patroio orokorretan oinarritzen dira. Zenbait ikertzailearen helburuek, estrategia analitiko ezberdinen arteko nahasketa eskatzen dute; horrela, ikerketaren subjektuaren deskripzio sakona lor dezake (Ragin, 2007).

#### 3.1. Gerturatze kualitatiboa

Atal kualitatiboari dagokionez, sakoneko elkarrizketa bat egingo da Lizarrako Udaleko Parte hartze saileko zinegotziarekin. Izan ere, Lizarran parte hartze teknikaririk ez dagoenez, bera da dispositiboaren prozesuaz arduratzen dena. Patxi Juaristik (2003) dioenez, barne egitura baten barruan erabakiak norik hartzen dituen aztertzeko oso teknika egokia da.

Modu zehatzago batean azaltzeko, elkarrizketa sakon hau zuzendua zein fokatua izango dela esan beharra dago. Izan ere, elkarrizketa honen helburua gai zehatz bat lantzea izango da (Patxi Juaristi, 2003): aurrekontu parte hartzaileak ezartzearen, dispositiboaren diseinuan, prozesuan eta emaitzetan jazotzen diren bazterketak identifikatzea, hain zuzen ere. Hau da, agente teknikoaren elkarrizketan, lau fase horietan jazotzen den bazterketa-maila identifikatuko da; eta horretarako interseksionalitatea tresna gisa erabiliko da. Modu berean, aipatu den legez, elkarrizketa zuzendua izango da; elkarrizketatzaileak, gidoia jarraikiz, elkarrizketa zuzenduko duelarik.

Horretaz gain, *Antolakuntza, kudeaketa eta erabaki publikoa* ikasgairako Lizarrako partaidetzako zinegotziari eginiko beste elkarrizketa sakon bat ere erabiliko da. Kasu honetan ere, elkarrizketa fokatua eta zuzendua izan zen. Izan ere, gidoia jarraikiz, partaidetza sailaren inguruko eta partaidetzazko aurrekontuen eskuragarritasunaren, gardentasunaren, metodologiaren eta barne hartzearen inguruko gaia jorratu zen.

#### 3.2. Gerturatze kuantitatiboa

Gerturatze kuantitatiboa burutzeko, bigarren mailako datuetan oinarritutako lanketa egin da. Beraz, 2018an Lizarran erroldatuta zeuden eta 16 urtetik gorakoak ziren biztanleen eta 2018ko Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan boza eman zuten biztanleen erroldari trataera kuantitatiboa eman zaio. Hala izanik, boza emaleen generoa emakume ala gizon bezala sailkatu da. Modu berean, adina lau multzotan bereizi da:

1. Taldea:  $X > 1957$
2. Taldea: 1958-1972
3. Taldea: 1973-1987
4. Taldea: 1988-2003

2018. urteko Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak ekainaren 16an bozkatu ziren; beraz, data hori taldeak sailkatzeko muga izan da. Hortaz, 1957an, 1972an edo 1987an jaio direnak, baina ekainaren 16a baino beranduago urteak betetzen dituztenak urte bat

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

beranduago jaio balira bezala hartu dira. Ondorioz, lehenengo taldea 2018ko ekainaren 16an 61 urte edo gehiago zituztenek osatzen dute. Bigarren taldea, aldiz, 46 eta 60 urte artekoek. Hirugarren taldea 31 eta 45 artekoek. Azkenik, laugarren taldea 16 eta 30 urte artean zeudenek osatzen dute.

Ikerlan honen froga enpirikoaren arabera, Lizarran erroldatuta dauden 16 urtetik gorako herritar guztiak unibertsoa dira; kasu honetan, 12.002 biztanle. Bestetik, hartuko den lagina, erroldatutako pertsona guzti horietatik bozkatu duten 820 pertsona izango dira laginaren parte. Beraz, boza eman dezakeen biztanleriaren %6,83 izango da gure lagina. Ondorioz, kasu honetan, unibertsoa zein lagina aldez aurretik zehaztutakoak dira. Izan ere, esan bezala, Unibertsoa Lizarran erroldatuta dauden eta 16 urtetik gorakoak diren biztanleak dira. Lagina berriz, bi baldintza horiez gain, 2018ko partaidetzazko aurrekontuetan boza eman zuten herritarrak dira.

820 boza horietatik, 76 korreoz emandakoak dira; horiek balio galdu modura tratatuko ditugu. Izan ere, udalak dagoeneko ez du biztanle horien genero eta adin informaziorik. Bestalde, erroldatik 26 boza falta dira, hauek ere, balio galdu modura tratatuko ditugu. Hortaz, ikertu daitekeen lagina 718 pertsonetan; eta beraz, 718 bozetan geratu da.

## 2. Taula. Kontzeptuak aztertzeko erabilitako metodologia

KONTZEPTUA	NOLA AZTERTU	ITURRIA
Demokraziaren eta parte hartzearen instituzionalizazioa	Lehen mailako iturriak: liburua eta artikulua akademikoak.	Donatella della Portaren "Democracias eta Jone Martínez-Palaciosen "Participar desde los Feminismos" eta "Exclusión, profundización democrática e interseccionalidad".
Demokraziaren eta parte hartzearen instituzionalizazioa	Bigarren mailako iturriak: artikulua akademikoaren aipuak.	Jone Martínez-Palaciosen "Participar desde los Feminismos" eta "Exclusión, profundización democrática e interseccionalidad".
Parte hartze elitista eta baztertua	Lehenengo mailako iturriak: liburua eta artikulua akademikoak.	Donatella della Portaren "Democracias", Jone Martínez Palaciosen "Participar desde los Feminismos" eta Patricia Hill Collinsen "The difference that power makes: intersectionality and participatory democracy".

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

Parte hartze elitista eta baztertzaila	Bigarren mailako iturriak: liburuan eta artikuluko akademikoan eginiko aipuak.	Donatella della Portaren “Democracias”, Jone Martínez-Palaciosen “Participar desde los Feminismos”.
Interseksionalitatea	Lehenengo mailako iturriak: artikuluko akademikoak.	Patricia Hill Collins et. al.-en “Symposium”, Patricia Hill Collinsekin “The difference that power makes: intersectionality and participatory democracy” eta Jone Martínez-Palaciosen “Exclusión, profundización democrática e interseccionalidad”.
Interseksionalitatea	Bigarren mailako iturriak: artikuluko akademikoan eginiko aipuak.	Patricia Hill Collinsekin “The difference that power makes: intersectionality and participatory democracy” eta Jone Martínez Palaciosen “Exclusión, profundización democrática e interseccionalidad”.
Dominazio Matrisea	Lehenengo mailako iturriak: artikuluko akademikoak.	Patricia Hill Collinsekin “The difference that power makes: intersectionality and participatory democracy” eta Javier Cubillosen “La importancia de la interseccionalidad para la investigación Feminista”.
Botere esparrua eta esparru politikoa	Lehenengo eta bigarren mailako iturriak: artikuluko akademikoak eta haueetan eginiko aipuak.	Jone Martínez Palaciosen “Exclusión, profundización democrática e interseccionalidad” eta “Participar desde los Feminismos”.
<i>Habitus-a</i>	Lehenengo eta bigarren mailako iturriak: artikuluko akademikoak eta haueetan eginiko aipuak.	Patricia Hill Collinsekin “The difference that power makes: intersectionality and participatory democracy” eta

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

		Jone Martinez Palaciosen “Exclusión, profundización democrática e interseccionalidad” eta “Participar desde los Feminismos”.
Kapitalak	Lehen mailako iturriak: artikulu akademikoak.	Pierre Bourdeuren “The Forms of Capital” eta Jone Martinez Palaciosen “Participar desde los Feminismos”.
Objektibatua eta erantsia	Lehen mailako iturria: artikulu akademikoa.	Pierre Bourdieuren “The Forms of Capital”.
Nola ikertu	Lehenengo eta bigarren mailako iturriak: artikulu akademikoak eta hauetan eginiko aipuak.	Jone Martinez Palaciosen “Exclusión, profundización democrática e interseccionalidad”.
Aurrekontu parte hartzaileak Lizarran burutzearen ideia, dispositiboaren diseinua, prozesua eta emaitzetan jazotzen diren bazterketak	Lehenengo mailako iturria: sakoneko elkarrizketa.	Lizarrako partaidetzazko zinegotzia.
Lizarrako aurkezlearen profila	Lehenengo mailako iturria: proiektuen aurkezleen ezaugarriak.	Lizarrako Udala.
Lizarrako bozkalearen profila	Lehenengo mailako iturria: eroldaren azterketa.	Lizarrako Udala.

Iturria: egileak berak eginikoa.

### 3.3. Hipotesiak

Ikerketa honen marko kontzeptuala landu ostean, honako hauek dira gure hipotesiak:

3.3.1. Interseksionalitatea bazterketa guztiak identifikatzeko eta hauen konplexutasuna ulertzeko tresna baliagarria da.

3.3.2. Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan parte hartzen duten agente dominatzaileen artean, genero, arraza, adin eta orientazio sexual bat nagusitzen da. Gizon, zuri, adin ertainekoa eta heterosexuala dena.

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

3.3.3. Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak zuzentzen dituen agente teknikoak, Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan parte hartzen duten agente dominatzaileekin kokapen soziala (generoa, arraza, adina eta orientazio sexuala) konpartitzen du.

3.3.4. Interseksionalitatearen ikuspegitik aztertzen denez, Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan parte hartzen duten agente dominatuak, aldi berean, agente dominatzaileak direla ikus daiteke.

3.3.5. Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan agente dominatuek aurkezten dituzten proiektuak, agente dominatzaileenak baino gehiago, bestelako agente dominatuei zuzenduak izaten dira.

3.3.6. Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan gutxiago edota modu pasiboagoan parte hartzen duten agenteak, agente dominatuak dira. Hauek emakumeak, etorkinak, gazteak zein agureak eta heterosexualak ez direnak dira.

## 4. LIZARRAKO PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK

### 4.1. Lizarrako egoera instituzionala

2015ean Lizarran gobernu aldaketa jazo zen, hala izanik; gaur egun EH Bilduk, Ahora-Orain Estella-Lizarrak (AOEL-ek) eta Geroa baik gobernu taldea osatzen dute. EH Bilduk bost zinegotzi izanik, AOEL-ek hiru izanik eta Geroa Baik, berriz, bi. Egoera honetan. Lizarrako alkatea, 2015. urtetik, Koldo Leoz Garcíandía da, EH Bilduko zerrendaburua dena. Bestalde, oposizioan, Union del Pueblo Navarro (UPN) bost zinegotzirekin (nahiz eta gaur egun bi ez dauden atxikituta, alderdiarekin desadostasunak izan dituztelako) eta Partido Socialista de Navarra (PSN) bi zinegotzirekin daude (Lizarrako Udala, 2019).

Azaldu berri den gobernu aldaketa honekin batera, praktikan, Partaidetzako Saila sortu zen, eta honen ardura instituzionala EH Bilduko zinegotzi batek hartu zuen; hala ere:

“Kontzeptua legealdi honen aurreko legealdian ere planteatu zen, eta EH Bildun garai horretan zeuden zinegotziek planteatu zuten batzorde bat antolatzeko beharra. Kontua da (indarrez) gehiengo etzuela... eskuinak eta soeren (PSNren) laguntzarekin, lortu zen batzorde bat eratzeko aukera. Kontua da hori, alkatetzaren esku geratzen denez, bada... bueno, sortu zutela, esango genuke modu testimonialean, baino etzuen bilera bat bera ere izan (desadostasunez). Beraz, lau urtetan sortu zen hor ente bat, baina ente horrek lau urtetan etzuen inongo ibilbiderik izan, m? (Egoeraz jabe da). Aurten (legegintzaldi honi erreferentzia eginez) izan zen, bada bueno, gu iritsi ginenean alkatetzara hori martxan jarri genuenok” (Z2, 2019; Zinegotzia).

Sail honek ez du teknikaririk, zinegotziaren esanetan, Udalak ezin dituelako langile gehiago kontratatu. Beraz, bera da prozesuaz arduratzen den agente teknikoa. “Momentuz ez da posible, kontratazio gehiago ezin ditugu egin, baina beno, etorkizunerako izan daiteke erronketako bat” (Z1, 2018; Zinegotzia; hemen aipatuta:Nerea Blanco-Aramendia, 2018:6).<sup>17</sup>

### 4.2. Dispositibo parte hartzailearen deskribapena

2015ean partaidetza saila martxan jarri eta, 2016ko aurrekontuei begira, lehenengo partaidetzazko aurrekontuak antolatu ziren; 2017an eta 2018an ere dinamika bera errepikatuz. Hala ere, 2016an Ordenantza izan gabe antolatu ziren:

“Egia da lehenengo urtean egin zela ez ordenantzaren arabera, baizik eta guk ordenantzan jarri nahi genuenaren arabera. Oraindik ordenantza ez zegoelako lotua. Noski hor ikusten dituzu ere prozesu osoan egon daitezkeen hutsak, egon daitezkeen hobetzeko puntuak... Eta behin bigarren edizioa egin genuenean, orduan atera genuen ordenantza onartzeko” (Z1, 2018; Zinegotzia; hemen aipatuta:Nerea Blanco-Aramendia, 2018:6).

Proiektuak aurkezteko, maiatzaren bukaera aldera, 15 eguneko epea irekitzen da. Hauek baldintzak betetzen dituzten errebisatzeko epe bat egoten da, Parte hartze saileko buruak eta hirigintza eta zerbitzuetako teknikariek errebisatzen dituzte.

“Gero, egia da, hor ateratzen diren proiektuak askotan, normalki behintzat izaten direla hirigintzarekin lotuak. Orduan bai hirigintza ataleko teknikari edo arkitektoarekin kasu honetan, eta

---

<sup>17</sup> Antolakuntza, Kudeaketa eta Erabaki Publikoa irakasgairako nik eginiko lanetik ateratako informazioa. Blanco-Aramendia, Nerea (2018). “Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak”. Leioa: argitaratu gabeko lana.

## Demokrazia parte hartzailea eta intersektionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

zerbitzuetako buruarekin hartu emanean aritzen naizela proiektu horiek garatu ahal izateko, m? (babes bila)” (Z2, 2019; Zinegotzia).

Baldintzak betetzen dituzten proiektuak eta hauen sortzaileak prentsan azaltzen dira proiektuen oinarriak azaltzeko. Ondoren, bozketa egiten da, modu presentzialean nahiz e-postaz egin daiteke; aukeratu diren lau proiektuak prentsan azaltzen dira berriro ere.

Proiektua aurrera ateratzeko baldintzak, hurrengoak dira:

“izan behar du herria hobetzeko, izan behar du interes orokorra, ez du izan behar pertsona batentzat (irribarrez, kasu ezagunak ditu) onura. Onura izan behar da, pixka bat auzoarentzat edo dagoen gunearentzat, diru kopuru bat ezin du pasa, 25.000 euroatik ezin du pasa, eta gero noski, legea bete behar du. Eta udalak dituen ordenantza eta legedia bete behar ditu” (Z1, 2018; Zinegotzia; hemen aipatuta: Nerea Blanco-Aramendia, 2018:7).

Esandako legez, lau proiektu aukeratu behar dira, eta lehentasunen arabera egin behar da. Hala izanik, herritar bakoitzarentzat lehentasun handiena duen proiektuari “1” zenbakia jarriko dio, prozesu bera egin beharko du hurrengo hirurekin. Hala izanik, lau proiektu bozkatuenak, Udalarentzat lehentasun handikoenak izango dira; urteko aurrekontuetan, osotara 100.000€ izango dituzte; proiektu bakoitzak 25.000€.

Zinegotziak, azaldu duenez, proiektuak lehentasunen arabera aukeratzeko arrazoiak badaude:

“Jende askok bere burua bakarrik ikusten duenez, edo bere txilborrari bakarrik egiten dionez so (desadostasun aurpegia, nekea), joaten da askotan ideia garbi batekin, ez? Bada, nire auzoan hau baldin badago edo hau aurkeztu bada, nik hau nahi dut. Bale, ados. Hori jar dezakezu lehen lehentasun moduan, baino gure helburua da ere jendeak herri ikuspegia izatea, orduan berak bere auzoan izango duen proiektu horretaz gain, zein iruditzen zaio egokia herriarentzat, garatzeko, ez? Horregatik eskatzen zaizkie besteei ere ba puntuazio bat ematea” (Z1, 2018; Zinegotzia; hemen aipatuta: Nerea Blanco-Aramendia, 2018:14).

Bestalde, jendea informatzeko eta proiektuak aurkeztu ditzakeenaren berri emateko, behean agertzen den esku orria etxe guztietara banatzen da. Horretaz gain, sare sozialetatik ere zabalduta egiten da. Esku orria, euskaraz zein gazteleraz banatzen da; nahiz eta hemen dugun irudia, euskara hutsean izan.

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzako aurrekontuak aztergai

## 1. Irudia. Prozesua azaltzeko etxeetara bidaltzen den eskuorria.

**AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK 2015-2016**  
Estella-Lizarrako Udalak, Parte-hartze Batzordeak bideratuta, prozesu parte hartzailea bideratuko du herritarrek, Udal-kudeaketaren parte bihurturik, hiria hobetzeko helburua duten ekimenak aurrera eramateko aukera izan dezaten. Horretarako, arestian aipaturiko helburua aintzakotzat harturik, Estella-Lizarrako herritarrek aukera izango dute Gobernu-Batzordeak eratuako urteko aurrekontuaren zati bat zertara bideratuko den erabakitzeko.

**NORK HAR DEZAKE PARTE?**  
Hirian errolatua eta 16 urte beteak dituen Estella-Lizarrako herritar orok luza ditzake hirian inbertsioak egiteko ideiak.

**ZEIN DA HERRITARREK DUTEN AURREKONTUA PROIEKTUAK PROPOSATZEKO?**  
Aurrekontu parte hartzaileak 100.000 eurotako diru-partida izango du proposamenak aurkezteko, lau zatitan banatua: aurkeztuko den proiektu bakoitzak ez du 25.000 eurotako kopurua gainditzerik izango.

**NOLA GARATUKO DUGU PROZESU PARTE HARTZAILEA?**  
1-) Hirian gauzatzeko proiektuaren bat aurkeztu nahi duen herritar orokainaren 1 eta 15 artean aurkeztu beharko ditu proposamenak Udal-Bulego nahiz Udaltzaingoa duen harrera-gelan. Horretarako, arestian aipaturiko lekuez gain, Parte-hartzerako Taula eta Alkate-Bulegoan kokatuko diren inprimakiak bete beharko dira.  
2-) 7 eguneko epean, Parte hartzerako Taula eta komunikabideak erabiliz, aurkeztu diren proposamenen berri emango zaio herritar orori.

**AURKEZTUKO DIREN INBERTSIO-PROPOSAMEN GUZTIAK ONARTUKO AL DIRA?**  
Egin diren proposamenen jarraipena egingo duen batzorde teknikoa eratu da Udaleko hainbat teknikariz osatua:  
1-) Ezarri den aurrekontua gainditzen ez duela ziurtatu: 25.000 euro proiektuko.  
2-) Aurkeztu den proiektuak legea eta oinarriko eskubideak betetzen dituela ziurtatu.  
3-) Teknikoki proiektua gauzagarria dela ziurtatu.  
Bestalde, proposamenen bat arestian aipaturiko arrazoen ondorioz onartua ez bada, eskatzaileari zuzenean jakinaraziko zaio horretarako eman diren arrazoiak azalduz.

**NOLA AUKERATUKO DIRA GAUZATUKO DIREN PROIEKTUAK?**  
Gauzatu diren proiektuak bozketa bidez aukeratu dira uztailaren 3an, igandea, Udaltzaingoa duen bulegoan, helburu hori betetzeko jarriko den bozka-ontzian bozka emanaz. Bozka emateko ordutegia honakoa izango da 10:00etatik 20:00etara.

**INHORK BOZKA DITZAKE AUKEZTU DIREN PROIEKTUAK?**  
Estella-Lizarran errolatua eta 16 urte beteak dituen herritar orok izango du hirian gauzatu diren proiektuak bozka bidez aukeratzeko eskubidea.

**NOLA GAUZATUKO DIRA AUKERATUTAKO PROIEKTUAK?**  
Bozketa bidez aukeratu diren proiektuaren eskatzaileek Parte-hartze Batzordeak egingo dituen bilereetan egoteko aukera izango du proiektuaren gauzatzeko-jarraipen zuzen izan dezan: gauzatzeko-pausoak, epeak...

Iturria: EH Bildu Lizarrako Twitterra<sup>18</sup>.

Esku orrian ematen diren azalpenak, modu argian ematen dira; bertan aipatzen denez, proiektu bat aurkezteko inprimaki bat bete behar da. Zinegotziaren arabera, prozedura azaltzeko egiten den ekintza bakarra etxeetara eta sare sozialetan esku orria banatzea da, oso erraza delako. Bere esanetan, hori da jardunaldiak edota tailerrak ez egitearen arrazoia:

“Oso sinplea da, bai. Ez da... horretarako prestatzen diren inprimaki batzuetan, prozedura guztia edo proiektuaren garapena azaldu behar da. Zergatik, zer lortu nahi duen, eta badaude puntu batzuk oso garbi jartzen direnak, eta inprimaki hori bete behar dute, eta postontzi horietan uztea, ez du beste... misteriorik. Beraz, erraza da. (Konbentzimenduz)” (Z1, 2018; Zinegotzia; hemen aipatuta: Nerea Blanco-Aramendia, 2018:12).

“Ez daukalako beharrik ee (konbentzimenduz -jardunaldiei edo tailer informatiboiei erreferentzia eginez-). Azken finean oso sinplea da. Ez da zailtasunik, beraz... horrekin nahiko eta gehiegi. (Isiltasuna). Gehiegi ez (indarrez, irribarrez), baino nahikoa (barrez)” (Z1, 2018; Zinegotzia; hemen aipatuta: Nerea Blanco-Aramendia, 2018:12).

<sup>18</sup> EH Bildu Lizarrako Twitter kontuaren linka: <https://twitter.com/EHBilduLizarra?s=03>



### 4.3. Proposatutako marko interpretagarria bazterketak ikertzeko

#### 4.3.1. Botere esparruaren barruan, partaidetzazko dispositiboak igortzen diren esparru politikoaren kokapena ikertzea

Lehenik eta behin, gogoratu behar dugu Pierre Bourdieuk horrela definitzen duela botere esparrua:

“Botere esparrua agenteek eta instituzioek, esparru ezberdinetan dominatzailearen kokapena izateko beharrezkoa duten kapitala izatean, komunean duten botere-harremanen esparrua da” (Pierre Bourdieu, 1995: 319; hemen aipatuta: Jone Martinez, 2017a: 89).

Kasu honetan, botere esparrua dispositibo parte hartzailearen barruan kokatu behar da; hau baita agente sozialek eta teknikoak harremana sortzen duten esparrua. Partaidetzazko aurrekontuen dispositiboa zein esparru politikotik igortzen den jakiteko, kasu honetan, agente teknikoaren kokapen politikoa ezagutu behar da; bera baita dispositiboaren sortzailea.<sup>19</sup>

“Ez dakit ondo geratzen den esatea (azkar), baina, bai. Nere ekarpen txiki bat izan zen (barrezka), baina bueno, azken finean ni izanik parte hartze batzordearen, komilla artean, burua... arautegi bat saiatu nintzen osatzen... gobernukideekin ere amankomunean jarri, eta hor zegoen puntuetako bat, bada, aurrekontu parte hartzaileena zen. Orduan bueno, bada, proposatu nuen arautegi hori gida moduan planteatua genuelako eta garatu nahi genuen lehenengo puntua hori zelako. Ikusten genuen erakargarritasun handia izan zezakeena, ba hori izan zitekeela (indarrez)” (Z2, 2019; Zinegotzia).

Partaidetzako zinegotzia adin-ertaineko eta klase sozial ertaineko gizon zuri, heterosexual eta ezkertiarra da, kapital kultural handia duena. Arestian aipatu den bezala, agente tekniko hauen profila “goi-mailako hezkuntza”, kapital ekonomiko zein sozial handia, “zuriak” eta “ezkertiarak” direnek osatzen dute (Lee, 2011:16; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017b:58). Hortaz, bere kokapen politikoa, agente dominatzailearena da.

Ezin dugu ahaztu agente teknikoaren rola oso garrantzitsua dela prozesu parte hartzaileetan. Hasteko, dinamizazioa modu askotan egin dezakeelako, eta interakzioan paper ezberdinak har ditzakeelako. Bigarrenik, agente teknikoaren iritziak (inplizitua zein esplizitua) beste agenteen jarrerak baldintza ditzakeelako. Azkenik, deliberatzeko arauen ezarpenean, agente teknikoak indar handia daukalako (Martínez-Palacios, 2017b).

Lehen azaldu den moduan, agente teknikoaren erronka, parte hartzaileek banako interesetatik, interes kolektiboetarako trantsizioa egitea da. Baina bide horretan, dominazioa ez jazotzea da erronkaren gakoa (Mansbridge, 1990; 2004; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017a). Zinegotziarentzat ere, erronka banako interesetik, interes orokorrera igarotzea da. Baina ez ditu prozesu horretan gerta daitezkeen dominazioak aipatzen. Modu honetan, bazterketak instituzionalizatzen dira:

“Batzuk kezkatzen direla soilik (isiltasuna), eta normala da, ez? Agian. Baina bere auzoa edo bere guneaz, ez? Eta... bueno, saiatu izan dira ere proiektu bat baino gehiago aurkezten...

---

<sup>19</sup> Lizarrako Udalak ez du partaidetza sailean agente teknikorik; beraz, honen ardura Partaidetza saileko burua den EH Bilduko zinegotziak hartzen du. Hala izanik, Unai parte hartzeko agente tekniko modura ikertuko da.

## Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzako aurrekontuak aztergai

(desadostasun aurpegia) bada bueno, esan genuen, zonalde bakoitzerako ere proiektu bakarra (indarrez). Gure helburua delako diru hau zabaltzea herrian ahalik eta modurik justuenean, ez? Eta ez dena fokalizatu leku batean” (Z2, 2019: Zinegotzia).

“Herri ikuspegi zabalago bat izaten laguntzen du, m? Eta hori ere, nik uste dut positiboa dela” (Z2, 2019; Zinegotzia).


### 4.3.2. Esparru politikoaren barne egitura aztertzea: agenteak, instituzioak eta osatzen duten produktuak, jokatzen duten kapitalak eta esparruan esanahia izateko behar den *habitus*-a

#### 4.3.2.1. *Agente sozialak eta agente teknikoak*

Aztergai dugun prozesu parte hartzaile honetan parte hartzen duen agente teknikoaren kokapena ikertu berri dugu. Bestetik, agente sozialen kokapena ikertzeke dago. Hauek boza emale modura eta proiektuen aurkezle modura agertzen dira. Boza emalearen profila aztertzeko, 2018ko partaidetzako aurrekontuetan boza eman zuten herritarren generoa eta adina ezagutu nahi izan da.

Ikerketarako lortu diren 718 boza emaletik, 301 gizonak dira eta 417 emakumeak. Gizonetatik, 116k 61 urte edo gehiago dituzte, 83k 46-60 artean, 84k 31-45 artean eta 18k 16-30 artean. Emakumeetatik, 156k 61 urte edo gehiago dituzte, 106k 46-60 artean, 119k 31-45 artean eta 36k 16-30 artean. Honako grafiko hauetan modu adierazgarriago batean azaltzen da:


#### 1. Grafikoa. 2018ko Lizarrako partaidetzako aurrekontuen boza emaleen generoa



Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: Lizarrako Udala.

Honako grafikoan boza emaleen generoa aztertu da, emakumezkoak %58,1 direlarik, eta gizonetzkoak, berriz, %41,9. Beraz, emakumezkoak %16,2 gehiago dira.

## 2. Grafikoa. 2018ko Lizarrako partaidetzazko aurrekontuen boza emaleen adina




Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: Lizarrako Udala.

Adinari erreparatuz, arestian aipatutako legez, lau taldetan banatu da; lehenengo taldean 2018ko ekainaren 16an 61 urte edo gehiago zituztenak sartzen dira. Bigarrenean, aldiz, 46 eta 60 artean zeudenak. Hirugarrenean, 31 eta 45 urteen artean zeudenak. Azkenik, laugarrenean, 16 eta 30 urteen artean zeudenak. Grafikoari so eginez, ikus daiteke lehenengo taldeak gehien parte hartzen duena dela, eta laugarrena, berriz, gutxien. Ehunekoei dagokienez, boza emaleen %37,9 lehenengo taldekoa da, %26,3 bigarrenekoa, %28,3 hirugarrenekoa, eta soilik %7,5 laugarren taldekoa.

## 3. Grafikoa. 2018ko Lizarrako partaidetzazko aurrekontuen boza emaleen generoa 1. adin-tartean


Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai



Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: Lizarrako Udala.

61 urte edo gehiago dutenen artean, %57,4 emakumeak dira, eta %42,6 gizonak; beraz, emakumeak %14,8 gehiago dira.


4. Grafikoa. 2018ko Lizarrako partaidetzazko aurrekontuen boza emaleen generoa 2. adin-tartean



Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: Lizarrako Udala.

46 eta 60 urteen artean daudenen %56,1 emakumezkoak dira, eta %43,9 gizonezkoak. Beraz, emakumeak %12,2 gehiago dira.


5. Grafikoa. 2018ko Lizarrako partaidetzazko aurrekontuen boza emaleen generoa 3. adin-tartean



Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: Lizarrako Udala.

31 eta 45 urteen artean dituzten boza emaleen %58,6 emakumeak dira, eta %41,4 gizonak; ondorioz, emakumeak %17,2 gehiago dira.

6. Grafikoa. 2018ko Lizarrako partaidetzazko aurrekontuen boza emaleen generoa 4. adin-tartean




Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: Lizarrako Udala.

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

Azkenik, 16 eta 30 urte artean dauden %66,7 emakumezkoak dira, eta soilik %33,3 gizonetzkoak. Hala izanik, emakumezkoak %33,4 gehiago dira.

7. Grafikoa. Lizarrako 2018ko partaidetzazko aurrekontuen boza emaleen generoa adin-tarte bakoitzean



Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: Lizarrako Udala.

Azken grafiko honetan adin-tarte bakoitzean, ehunekotan zenbat emakume eta zenbat gizon diren azaltzen da. Hala, beraz, modu adierazgarri batean talde gazteenean, emakumeak, boza emale modura, gizonak bikoizten dituzte. Bestalde, emakume eta gizonen arteko alde txikiena bigarren taldean dago, %12,2ko aldearekin. Honen oso antzeko norabidea lehenengo taldeak jarraitu du, %14,8ko aldearekin. Honetatik nahiko gertu ere, hirugarren taldea dago, %17,2ko aldearekin. Ondorioz, aipatu bezala, azken taldeak alde nabarmenena du. Bestetik, bitxia da, hirugarren taldea, bigarren gazteena dena, hurrengo alde nabarmenena izatea, %20ko aldetik hurbil geratu baita.

Ondorioz, boza emale modura parte hartzen duen agente sozialaren profila, adinari dagokionez, 31 urtetik gorakoa dela esan daiteke. Gainera, 61 urtetik gorako jendea gehiengoa dela ere aipatzekoa da, boza emaleen %37,9 izanik. Laugarren taldea, soilik %7,5 delarik. Generoari dagokionez, orokorrean, emakumezkoak gehiengoa dira, batz bestea %58,1 emakumezkoak dira.

Esan bezala, agente sozialek ere, proiektuak aurkezten dituzte; beraz, proiektuen aurkezlearen profila aztertu behar da. Horretarako, 2016ko, 2017ko eta 2018ko proiektuen aurkezlearen izaera (banakoa ala taldea den) eta banakoa izatekotan, honen generoa, arraza eta adina eta orientazio sexuala aztertuko dira.

3. Taula. 2016ko partaidetzazko aurrekontuetan aurkeztutako proiektuak

Proiektua	Aurkezlea: banakoa/taldea	Aurkezlearen generoa	Aurkezlearen adina
Desfibriladoreak Lizarrako kaleetatik jartzea	Gurutze Gorria		
San Migel auzoan hiri hobekuntzak egitea	Taldea: San Migel Auzo Elkarte		
Kaleen irisgarritasuna hobetzea	Amife <sup>20</sup>		
Foru Plazako komun publikoak egokitzea	Banakoa	Gizona	2. Taldea
Banku gehiago jartzea	Banakoa	Gizona	1. Taldea
Haurrentzako parke gehiago jartzea	Banakoa	Emakumea	3. Taldea
Asfaltatze hobekuntzak eta Lizarra elizako elizpearen egokitzea	Banakoa	Gizona	3. Taldea
Ofizialtza eta Puyko basilika gunean ur-drenatze lubakien eraikuntza	Banakoa	Gizona	3. Taldea
Ur gaziko igerilekuen sarreraren hobekuntza			
Karlos VII. guneko hobekuntzak	Banakoa	Gizona	1. Taldea
Remontibal guneko hobekuntzak	Banakoa	Gizona	2. Taldea

<sup>20</sup> AMIFE: aniztasun funtzionala duten pertsonen elkarte Lizarraldean.

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzako aurrekontuak aztergai

Las Hayas gunean (ospitalean) haurrentzako jolas parke baten eraikuntza	Banakoa	Emakumea	3. Taldea
Los Llanos Kafetegian txikipark bat jartzea	Banakoa	Gizona	3. Taldea
Odol-emaleen pasabidearen lekualdaketa	Banakoa	Gizona (aniztasun funtzionala)	1. Taldea
Bolante gunean “pi-pi can” bat jartzea	Banakoa	Emakumea	3. Taldea
Zenbait bihurguneren espaloiak babestea			
Atletismo pista bat eraikitzea	Banakoa	Gizona	3. Taldea
Lizarra Frontoia berritzea	Banakoa	Gizona	3. Taldea
Hiriko kaleetan saskibaloia saskiak jartzea	Taldea: Oncineda.		
Lizarrako zein kanpoko musika-taldearen ziklo bat egitea	Banakoa	Gizona	4. Taldea
“Estella diversa-Lizarra anitza” jaialdiaren antolakuntza	Banakoa	Gizona	4. Taldea
Zumake ibilbidearen eraikuntza	Banakoa	Emakumea	3. Taldea
Autokarabanen gune baten sorrera	Banakoa	Gizona	3. Taldea




Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: Calle Mayor aldikaria eta Lizarrako Udala.

2016ko partaidetzazko aurrekontuetan 24 proiektu aurkeztu ziren, 17 banako, 4 talde, eta beste 3ak informazio faltagatik balio galdu modura hartuko ditugu. Beraz, 21 proiektutik 17 banakoek aurkeztu zituzten; horietatik, 13 gizonek aurkeztuak eta 4 emakumeek aurkeztuak. Esanguratsua da emakume guztiak 3. adin-taldekoak direla. Esan beharra dago, 13 horietatik, 3 gizon berak aurkeztu zituela. 17 proiektu horietatik 10 3. adin-tartekoengatik aurkeztua izan ziren, 3 1. adin-tarteko jendearengatik, 2 2. adin-tartekoengatik eta beste 2 4. adin-tartekoengatik. Beheko grafiko honetan argi ikus daiteke:

8. Grafikoa. 2016ko Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan aurkeztutako proiektuen aurkezleen generoa eta adina



Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: Calle Mayor aldikaria eta Lizarrako Udala.

4. Taula. 2017ko partaidetzazko aurrekontuen proiektuak eta aurkezleen generoa eta adina

Proiektua	Aurkezlea: banakoa/taldea	Aurkezlearen generoa	Aurkezlearen adina
60ko hamarkadako "Andres eta M <sup>a</sup> Puy" erraldoiak zaharberritu	Taldea: "comparsa gigantes y cabezudos".		
Entzierrorako hesiak berritu	Banakoa	Gizona	3. Taldea
Lizarra-Frontoian konponketak 50.	Banakoa	Gizona	3. Taldea

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzako aurrekontuak aztergai


urteurrena probestuz			
Lizarra-Auzoan berritze-lanak	Taldea: auzokideen elkarte.		
“Las Hayas”en jolastokia eraiki	Banakoa	Emakumea	3. Taldea
San Miguel auzoan berritze-lanak egin	Taldea: San Migueleko auzokide elkarte.		
Material naturalak erabiliz, jolasterako-guneak eraiki herrian zehar egon daitezkeen lekuak probestuz	Taldea	Plisti-Plasta	
Kultur Etxeko patioa beirazko teilatuaz estali	Banakoa	Gizona	1. Taldea
Zezen-plaza haur jolasez hornitu urtean zehar erabilera izan dezan	Banakoa	Gizona (etorkina)	2. Taldea
Hirian dauden hainbat puntu pertsona ezinduen erosotasunerako egokitu	Taldea: AMIFE.		
Botatako eraikinek utzitako horma desitxuratuetan lorategi bertikalak edota muralak ipini	Banakoa	Gizona	3. Taldea
Gazteluetako inguruak berritu: eskailerak, barandak	Banakoa	Gizona	1. Taldea
Merkataritzan euskara sustatzeko	Taldea: Garean Euskaldunon		

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

diru-laguntzak eman	Elkartea		
---------------------	----------	--	--

Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: Lizarrako Udala eta Calle Mayor aldizkaria.

9. Grafikoa. 2017ko Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan aurkeztutako proiektuen aurkezleen generoa eta adina



Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: Lizarrako Udala eta Calle Mayor aldizkaria.

Honakoan ikus daitekeenez, zazpi banakok aurkeztu dute proiekturen bat (gainontzeko seiak taldeek aurkeztu dituzte). Zazpi horietatik, soilik proiektu baten aurkezlea emakumezkoa da. 31 eta 45 urteen artean dagoen emakume batena, Las Hayasen haur parke bat jartzearena, hain zuzen ere. Soilik etorkin batek aurkeztu du proiektu bat (orain arte bakarra izan da), Zezen Plaza haur jolasez hornitzea proposatu duena, hain zuzen ere. Gizon hau 46 eta 60 urte artekoa da. Bestalde, 16 eta 30 urte bitarteko jendeak ez du proiektu bat bera ere aurkeztu, eta 61 urtetik gorako taldetik, soilik bi gizon zurik.

5. Taula. 2018ko partaidetzazko aurrekontuen proiektuak eta aurkezleen generoa eta adina

Proiektua	Aurkezlea: banakoa/taldea	Aurkezlearen generoa	Aurkezlearen adina-tartea
Zakur-parkea Carlos VII inguruan	Banakoa	Emakumea	3. Taldea
Curtidores inguruko zubixka eta altzariak berritu	Banakoa	Gizona	3. Taldea
Geltoki ondoko aparkalekuan	Banakoa	Emakumea	3. Taldea

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzako aurrekontuak aztergai

dagoen jolas-parkea handitu jolas egokituak erabiliz			
Igerileku naturala Los Llanosetan	Banakoa	Emakumea	3. Taldea
Remontibal inguruko iturrian konponketak	Banakoa	Gizona	2. Taldea
“Cordeleros”eko aparkalekua asfaltatu	Taldea: San Miguel auzo elkarte		
Udaleko informazio eta ekintzen berri emango duen aplikazioa gauzatu	Banakoa	Emakumea	3. Taldea
“Agua Salada” igerilekuetan konponketak	Banakoa	Emakumea	2. Taldea
Hazi-Biltegia sortu Estella-Lizarran	Taldea: elkarte		
“Valdelobos”en bertako anfibio moten berri emango duten oholtzak antolatu	Taldea: elkarte		
Konposerako eskola sortu	Taldea: elkarte		
Euri-ura jasotzeko sarea egokitu Remontibal inguruan	Banakoa	Gizona	2. Taldea
Arkeologi-lanak antolatu Gaztelu Nagusian	Banakoa	Gizona	2. Taldea
Bide gorria handitzen ditu B Sektorea Valdelobosekin lotuz	Banakoa	Emakumea	3. Taldea


Demokrazia parte hartzailea eta intersektionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

Zakur arriskutsu eta inguruko xendak kontuan izango dituen plana eratu	Banakoa	Gizona	2. Taldea
Jolas-parkea erabiltzen ez den lekuan	Banakoa	Gizona	2. Taldea
Bide gorria handitu Aiegi eta Estella-Lizarra batuz	Banakoa	Gizona	3. Taldea
Abeq Seraq kalea berritu eta egokitu	Banakoa	Emakumea	2. Taldea
“Desvelados” parkea egokitu	Banakoa	Gizona	1. Taldea
Autokarabanentzat aparkalekua eraiki	Banakoa	Gizona	3. Taldea
Lizarra-auzoan konponketak	Taldea: auzo elkarteak.		
Gazte-kontsumoen inguruko sentsibilizazio-plana	Banakoa	Emakumea	2. Taldea
Irisgarritasun arazoak konpondu	Taldea: AMIFE.		

Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: Lizarrako Udala eta Calle Mayor aldizkaria.

10. Grafikoa. 2018ko Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetako proiektuen aurkezleen generoa eta adina


## Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzako aurrekontuak aztergai



Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: Lizarrako Udala eta Calle Mayor aldizkaria.

Azken urtean ere 16 eta 30 urte arteko jendeak ez du proiektu bat ere aurkeztu. Bestetik, 61 urtetik gorako jendearen artean, gizon zuri bakarra dago. 17 banakok aurkeztu dute proiekturen bat, horietatik zortzi emakume dira eta bederatziz gizon. 31 eta 45 urteen arteko taldetik, hiru emakume dira, eta bost gizon. 46 eta 60 urteen artean, aldiz, bost emakume eta hiru gizon. Aipatu bezala, falta den gizona, 61 urte baino gehiagokoa da. Kasu honetan, denak, zuriak dira. Beraz, hiru urteetan soilik etorkin batek aurkeztu du proiekturen bat, eta 16 eta 30 urteko adin-tartetik, soilik bik aurkeztu dute proiekturen bat. Aipatzekoa da, hiru kasuetan gizonak izan direla aurkezleak.

11. Grafikoa. 2016, 2017 eta 2018ko Lizarrako partaidetzazko aurrekontuen proiektuen aurkezleen generoa eta adina



Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: Lizarrako Udala eta Calle Mayor aldizkaria.


Honako grafikoan, datu orokorrak ikus daitezke, 61 urtetik gorako sei pertsonak aurkeztu dute proiekturen bat. Huetako guztiak gizonak eta zuriak dira. 16 eta 30 urteren artean kokatzen direnari, soilik bi gizon zuri aurkeztu dute proiekturen bat. Adin talde dominanteak 46 eta 60 artekoa eta 31 eta 45 urte artekoa dira; 11 eta 22 proiektu aurkeztu dituzte adin-tarte huetako pertsonak hurrenez hurren. 31 eta 45 urteen arteko aurkezleen artean, 12 gizonak dira eta 10 emakumeak; hau da adin-talde dominantzaileena. Bestalde, 46 eta 60 urteen arteko aurkezleetatik 8 gizonak dira eta 3 emakumeak.

Ondorioz, adin-tarte baztertuetatik, soilik gizon zuriek aurkezten dituzte proiektuak. Aurkezleak diren emakume gehienak (13tik 10) 31 eta 45 urteen arteko adin-tartean kokatzen dira, adin-tarte hegemonikoa dena. Izan ere, osotara 41 banako aurkezle daude, horietatik 31 eta 45 urteen arteko taldean kokatzen direnak, 22 dira; hau da, erdia baino gehiago. Beste hiru emakumeak 46 eta 60 adin-tartekoak dira, hau, 3. Taldearen atzetik, nagusitasun handiena duena da.

Bestalde, proiektuen aurkezleen anonimotasuna dela eta, ezin da jakin erabateko zehaztasunez, banako guztiak heterosexualak direnik. Baina zinegotziaren esanetan: "Proposamenetan parte hartu duena? Bada, ez dakit... 40-50 urte tartean, gizona izan daiteke, eta pentsatzen dut heterosexuala, gehiengoa behintzat" (Z2, 2019; Zinegotzia).

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

12.Grafikoa. 2016, 2017 eta 2018ko Lizarrako partaidetzazko aurrekontuen proiektuen aurkezleen generoa



Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: Lizarrako Udala eta Calle Mayor aldizkaria.

Aurkezleen generoa adierazten duen grafiko honetan, gizonek emakumeak bikoizten dituztela ikus daiteke. Izan ere, 41 aurkezletik 28 gizonak dira eta 13 emakumeak. Gainera, aipatu berri den bezala, adin-tarte baztertuetan kokatzen diren guztiak gizon zuriak dira. Hau da, dominatuak dira adinaren ardatzari dagokionean, baina dominatzaileak dira arrazari eta generoari dagokionean. Izan ere, genero aldetik, emakumeen kopurua bikoizten dute, eta arraza aldetik, 41 pertsonetatik etorkin bakarra dago.

6. Taula. 2016ko partaidetzazko aurrekontuetan irabazitako proiektuak

PROIEKTU IRABAZLEAK	AURKEZLEAK	BOZA KOPURUA
Desfibriladoreak kalean	Gurutze Gorria	454
Kaleen irisgarritasuna	Amife	371
San Migel auzoko konponketak	San Migel auzo elkarte	357
Foru Plazako komun publikoen egokitzea	2. Adin-tarteko gizona	334

Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: Lizarrako Udala eta Calle Mayor aldizkaria.



Demokrazia parte hartzailea eta intersektionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

7. Taula. 2017ko partaidetzazko aurrekontuetan irabazitako proiektuak

PROIEKTU IRABAZLEAK	AURKEZLEAK	BOZA KOPURUA
San Migel auzoko berrikuntzak	San Migel auzo elkarteak	612
Hesi arkitektonikoen deuseztatzea	Amife	580
Material naturalak erabiliz, jolasteko-guneak eraiki herrian zehar egon daitezkeen lekuak probestuz	Plisti-Plasta Familia Gunea	420
Las Hayasen haur parkea jartzea	3. Adin-tarteko emakumea	411

Iturria: egileak berak eginikoa. Zinegotziak emandako datuekin.

8. Taula: 2018ko partaidetzazko aurrekontuetan irabazitako proiektuak

PROIEKTU IRABAZLEAK	AURKEZLEAK	BOZA KOPURUA
Santiago Plazako hesi arkitektonikoen deuseztatzea	Amife	790
Geltokiko haur parkearen hobekuntza eta irisgarritasuna	3. Adin-tarteko emakumea	742
San Migel auzoko aparkalekuaren hobekuntza	San Migel auzo elkarteak	739
Ega hondartzan igerileku naturala jartzea	3. Adin-tarteko emakumea	537

Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: Lizarrako Udala eta Calle Mayor aldizkaria.

Esparru politikoan kokapen ona duten agenteek, “sistemari egiten zaizkion eskaeren kopurua kontrolatuko dute, neurri handi batean” (Easton, 2006:168; hemen aiptatuta: Martínez-Palacios, 2017a:77). Gainera, mugimendu sozialekin edo dispositiboaren inguruko informazioa duten agenteekin lotura edo harremana duten agenteek, parte hartzea baldintza edota bultzatza dezakete (Martínez-Palacios, 2017). Froga enpiriko honetan ikus daitezkeenez, AMIFEk eta San Migel auzo elkarteak, urtero proiekturen bat aurkeztu dute, eta urtero irabazi dute. Bi elkarteek hirigintzari begirako proiektuak aurkezten dituzte, San Migel auzo elkarteak, auzoa hobetzeari begira. AMIFE elkarteak, aldiz, Lizarrako kaleen irisgarritasuna hobetze aldera.

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

“Jendea mobilizatzen dutelako. Azken finean proiektuak nik uste dut egokiak direla, San Migel auzoa ere urte askoan nahiko utzia egon delako, eta nik uste azpiegitura aldetik ere behar dutela bultzada txiki bat. Baina auzo elkarteak ba funtzionatzen du nahiko ongi (konbentzimenduz) eta jendearen artean hitz egiten dute, bizilagunei helarazten zaie auzorako aurkeztu dela proiektu bat, eta nola gauzatuko den aukeraketa eta hori guztia. Eta jendea bozkatzera joaten da (tinko, konbentzimenduz, funtzionatzen duela azaldu nahian). AMIFEk ere bazkide asko ditu, egia da agian AMIFEren lanak sentsibilizazio handiagoa sor dezakeela jendearen artean, eta horrek ere eragiten duela gero, aukeratua izateko... baino arrazoia hori da. Azkenean, mugitu egiten direlako eta marketing pixka bat egiten dutelako beraien proiektuak saltzeko (konbentzimenduz). Eta hori da helburuetako bat ere, jendea pixkat mugitzea” (Z2, 2019; Zinegotzia).

Horretaz gain, 2016an *Gurutze Gorriak* ere, *Desfibriladoreak kalean jartzea* proposatu eta irabazi zuen. Bestalde, 2017an *Plisti-Plasta Familia Guneak Material naturalak erabiliz, jolasterako-guneak eraiki herrian zehar egon daitezkeen lekuak probestuz* proiektua proposatu eta irabazi zuen.

Hala izanik, orotara, 12 proiektu irabazletik, 8 talderen batek aurkeztuak izan dira. Zortzi horietatik, hiru San Migel Auzo Elkarteak aurkeztu ditu, eta beste hiru AMIFE elkarteak. Beste lau proiektu irabazleak norbanakoek aurkeztu dituzte: 2016koa 46-60 adin-tarteko gizona, 2017koa eta 2018ko beste biak 31-45 adin-tarteko hiru emakume.

#### 4.3.2.2. *Instituzioak osatzen duen produktua*

Partaidetzazko aurrekontuak, produktu gisa uler ditzakegu; beraz, azpisistema politikotzat ere jo genezake. Hortaz, “sakontze demokratikorako prozesu hauetan sistema politikoaren logikak”; eta ondorioz, “sistemaren eraginak” ikus daitezkeela ohar gaitzake (Jone Martinez, 2017a:84).

Partaidetzazko aurrekontuetan, bizilagunentzat garrantzitsuak ziren gaiak lantzen hasi ziren (Abers; hemen aipatuta: della Porta, 2017). Dispositibo hau, izaera lehiakorra du; hala izanik, herritarrek auzokideak... mobilizatu behar dituzte; beren proiektuek arrakasta izateko (Ibidem, hemen aipatuta: della Porta, 2017). Lehenago aipatu den moduan:

“Jendea mobilizatzen dutelako. (...) eta jendearen artean hitz egiten dute, bizilagunei helarazten zaie auzorako aurkeztu dela proiektu bat, eta nola gauzatuko den aukeraketa eta hori guztia. Eta jendea bozkatzera joaten da (tinko, konbentzimenduz, funtzionatzen duela azaldu nahian). AMIFEk ere bazkide asko ditu, egia da agian AMIFEren lanak sentsibilizazio handiagoa sor dezakeela jendearen artean, eta horrek ere eragiten duela gero, aukeratua izateko... baino arrazoia hori da. Azkenean, mugitu egiten direlako eta marketing pixka bat egiten dutelako beraien proiektuak saltzeko (konbentzimenduz). Eta hori da helburuetako bat ere, jendea pixkat mugitzea” (Z2, 2019; Zinegotzia).

“Egia da batzuk kezkatzen direla soilik (isiltasuna), eta normala da, ez? Agian. Baina bere auzoa edo bere guneaz, ez? Eta... bueno, saiatu izan dira ere proiektu bat baino gehiago aurkezten... (desadostasun aurpegia) bada, bueno, esan genuen, zonalde bakoitzerako ere proiektu bakarra (indarrez)” (Z2, 2019; Zinegotzia).

Lizarrako partaidetzazko aurrekontuek ere, parte hartze izaera duten erabakiak, ahalik eta denbora gutxienean hartzearen logika jarraitzen dute. Horrek, Nonjon, Hendricks eta Caronek azaltzen dutenez, “parte hartze instituzionalaren merkatu baten existentzia” azaleratzen du (Nonjon, 2006; Hendricks y Carson, 2008; hemen aipatuta: Martínez-Palacios, 2017b:54). Izan ere, proiektuak aurkezteko bi asteko epea ematen da,

Demokrazia parte hartzailea eta intersektionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

lehenago aipatu diren baldintzak betetzen dituztela ziurtatzen denean, prentsan aurkeztu eta zehaztutako datan bozketa egiten da. Horietatik, boza gehien lortu dituzten lau proiektuek 100.000 euroko partida izango dute; 25.000€ bakoitzak.

Horretaz gain, Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan, banako modura aurkezten diren proiektuen prozesuan ez dago inolako deliberaziorik. Bestalde, taldeek aurkezten dituzten proiektuetan, printzipioz, proiektuak adosteko asanbladak egiten dira. Baina, hauetan, udalak ez du inolako esku hartzerik ezta presentziarik ere:

“Bada, badakit asanbladan antolatzen dutela (taldeek aurkezten dituzten proiektuak aurkezteko eramaten duten prozesuaz ari da). Bai, asanbladan edo bada, juntak edo, elkarte bakoitzeko juntak edo asanbladak markatzen dituzte pixkat zeintzuk diren beharrak, lehenatasunak eta lehenatasun hori da aurkezten dutena prozesu honetarako” (Z1, 2018; Zinegotzia).

“Ez, ez, ez... ez, ez (asanblada horietan nolabaiteko eskumenik duten galderari erantzunez). Aurkezteko... zera guztia, prozesu guztia, librea da. Gero noski, aurkezten dutena, ikusi behar da teknikoki ba udaletxeak gaitasuna baduen hori garatzeko. Orduan ba bueno, hartu emana aurkezlearekin izaten da ehuneko ehuna (indarrez, adostasunez). Hitz egiten da, ez badago zerbaiteko aukerarik, proposatzen da alternatibaren bat bilatu, eta egokitzen da proiektua kasuren batean, baino bestela aurkezteko proiektuak, nahi dutena aurkeztu dezakete” (Z1, 2018; Zinegotzia).

Hau da, behin proiektua garatuta dagoela eta taldeak aurkezten duela, errebisatzen da eta taldetik aurkeztu duen pertsonarekin harremanetan jartzen dira. Baina proiektua erabakitzeko, garatzeko eta zehazteko prozesuan Udalak ez du inolako eskumenik; agente teknikoak ez du asanblada horietan parte hartzen. Modu honetan, agente teknikoak ezin du jakin *habitus* parte hartzailea zein den; hortaz, ezingo ditu menderakuntza horiek desaktibatu.

#### 4.3.2.3. *Jokatzen duten kapitalak*

Lizarra bezalako hiri txiki batean, kapital esanguratsuena soziala da, arestian aipatutako legez:

“zenbat eta handiagoa izan agentearen kapitala (kulturala zein ekonomikoa) bere harreman batean metatutako kapital soziala ere handiagoa izango da (batez ere soziala, baina baita kulturala eta ekonomikoa ere)” (Pierre Bourdieu, 1986:52).

Arestian aipatu denez, San Migel Auzo Elkarteak eta AMIFEK mobilizaziorako gaitasuna dute; horren ondorioa urtero beren proiektuek irabazi dutela da. Bestalde, beste bi elkarten atzean ezkututzen diren agenteen kokapena ezagutu behar da. Hasteko, Plisti-Plasta Familia Guneko proiektua aurkeztu zuena, urte askoan Arieta Haur Eskolako zuzendaria izandako 46 eta 60 adin-tarteko gizon, zuri eta heterosexuala da, kapital kultural handia duena eta euskaraz zein gazteleraz dakiena. Halaber, Geltokiko haur parkearen hobekuntza eta irisgarritasuna proiektu irabazlea proposatu zuen 31 eta 45 urte arteko emakume, heterosexual, zuria, kapital kultural handikoak eta euskaraz zein gazteleraz dakienak, garun-paralisia duen Lizarrako haur baten ama da. Honen kapital sinbolikoa oso esanguratsua da, 2017an Lizarran Jaialdi bat antolatzea lortu zuten, eta osotara, ia 28.500€ lortu zituzten bere alabarentzat.

Bestalde, Gurutze Gorriko presidentea, 2018an Ega hondartzan igerileku naturala jartzea proposatu eta irabazi zuen; 31 eta 45 adin-tarteko emakume, heterosexual zuria da,

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

euskaraz zein gazteleraz dakiena. Hala ere, orain DBHko titulua ateratzen ari den emakumea da, baina Lizarrako gizartean erabat politizatuta dagoena. Batez ere, mugimendu feministarekin lotura estua dituen agentea da. Izan ere, lehenago aipatu den moduan, sakontze demokratikorako hizkuntza kapitala eta kapital politikoa berebiziko garrantzia dute (Jone Martínez, 2017a).

Horregatik, aipatu da, agente teknikoek parte hartzearen eta deliberazioaren eredu dominatzailearen sorreraren inguruko hausnarketa egin behar dutela. Aitzitik, kapitalen birbanaketa eta esparruaren arauen eraldaketa ezingo da gauzatu. Horretarako agente teknikoak agente sozial dominatzaileen *habitus*-a zein den ikertu eta talde dominatzaileak identifikatu behar ditu. Bestela ezingo du menderakuntza hori desaktibatu, kapital horiek ematen diotelako. (Martínez-Palacios, 2017a).

Hala ere, azaldu den moduan, Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan, banako modura aurkezten diren proiektuen prozesuan ez dago inolako deliberaziorik; beraz, hizkuntza kapitala, instituzioari eta publikoki aurkezteari dagokionean, desaktibatuta geratuko litzateke.

#### 4.3.2.4. *Esparruan esanahia izateko behar den habitusa*

Euskal Herriko parte hartze instituzionaleko esparru politikoko dominatzaileak, "klase sozial ertain-altukoak, hezkuntza-maila altukoak, euskararekin harreman bibalentea dutenak, zuriak eta gizonak" dira (Martínez-Palacios, 2017b:66). Lizarrako kasuan, proiektuak aurkezteko parte hartzen duen agente dominatzailea gizon, zuria, heterosexuala eta adin ertainekoa (31 eta 60 urte artekoa) dela ikusi da.

Lizarrako esparru politikoan dispositibo parte hartzaileak sortzen direla aipatu da lehenago. Beraz, *habitus* parte hartzailea, esparru politikoa edo instituzioak dominatzen dituztenen profil bera duen aztertu behar da (Martínez-Palacios, 2017b). Hala bada, *habitus* dominatzaileko agenteak, parte hartzeko eroso sentitzen direnak dira (Jone Martínez, 2017a).

Lizarrako partaidetzazko aurrekontuen dispositiboa sortu duen agente teknikoa gizona, zuria, adin ertainekoa (40 urte ingurukoa), kapital kultural handikoa, klase sozial ertainekoa, heterosexuala eta elebiduna (euskaraz zein gazteleraz hitz egiten du) da.

Hortaz, kasu honetan, esparru politikoa dominatzen duen agenteak Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan proiektuak aurkezteko beharrezkoa den *habitus* parte hartzailea baldintzatu duela esan daiteke.

#### 4.3.3. Kokapen hauek betetzen dituztenen *habitus*en sorreran inguruan hausnartzea

Atal honek garapen luzeagoa eskatzen du, baina momentuz, ikerlan honetan, laburki esanda, froga enpiriko honekin ikusi da kapitalismoak, arrazakeriak, heteropatriarkatuak... eragiten dituzten bazterketak ezin direla modu isolatuan jardungo balute bezala ulertu. Hala izanik, dominazio ardatz hauek norbanakoak hasieratik gurutzatzen dituztela ulertzen da. Modu honetan, Dominazio Matrize honen ardatzek, norbanakoek kokapen bat izatea eragiten dute; ardatz hauek gurutzatzen dituen norbanakoa dominatua izango da, eta

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

ardatzak zehazteko aukera duen norbanakoa dominatzailea izango da. (gizona, zuria, heterosexuala, kapital kultural handia, klase sozial ertaina eta altua duena...).

Botere esparruaren mugak agente dominatzaileek ezartzen dituzte, hala izanik, agente dominatua ala dominatzailea izateko, hasieratik agenteek dituzten ezaugarrietan eragina izango du. Hala, muga horien barnean daudenak agente dominatzaileak izanik, eta *outsiderrak* dominatuak izanik. Esan bezala, Lizarrako kasuan, gizon, zuri, heterosexuala eta adin ertainekoa *habitus* parte hartzailea zehazten duena da. Bestalde, emakumea, etorkina, heterosexuala ez dena eta gaztea edo nagusia dena, *habitus* parte hartzaile horren menpe dagoena da, agente hau parte hartzen ez duena da, errealitatea sortzeko aukera murrizak dituena.

#### 4.3.4. Dispositiboaren *habitus* parte hartzaileak duen Dominazio Matrizearen ardatzak identifikatu

Arestian, aztertutakoa ikusita, Lizarrako partaidetzazko aurrekontuen dispositiboak duen *habitus* parte hartzailearen Dominazio Matrizearen ardatzak hauek dira: generoa, orientazio sexuala, arraza eta adina. Hala izanik, gizon, heterosexuala, zuria eta adin ertainekoa agente dominantea da. Beraz, emakume, heterosexuala ez dena, etorkina eta gaztea edo adin nagusikoa dena agente dominatua da.

Lizarrako 2018ko partaidetzazko aurrekontuetan boza eman zuen agente dominantea, aldiz, adin nagusiko emakumea da. Agente dominatua, berriz, gizon gaztea da.

#### 4.3.5. Dominazio Matrize ezberdinek maila biografikoan, taldekoan eta instituzionalean eragiten duten moduak ikertu eta erresistentziak identifikatu

Maila biografikoan, aipatu berri den agente dominatua eta dominatzailea egotea eragiten du. Hau da, proiektuak aurkezten duen agente dominatzailea (modu aktiboagoan parte hartzen duena) hurrengo da: gizon, heterosexuala, zuria eta adin ertainekoa. Beraz, emakume, heterosexuala ez dena, etorkina eta gaztea edo adin nagusikoa agente dominatua da.

Horrek, proiektuen aurkezle modura 28 gizon heterosexuala egotea eragiten du; horietatik bakarra etorkina delarik, eta soilik bi 16 eta 30 urte artekoak dira. Emakumeen artean, berriz, 13 dira, denak zuriak, 10 31 eta 45 urte artekoak eta soilik 3 46 eta 60 urte artekoak.

Taldeei dagokienez, arrakasta handiena duten taldeak, lehen esan bezala, hirigintzari zuendutakoak dira. Hala, San Migel Auzo Elkarteak eta AMIFEk urtero irabazi dute

“San Migelen kasuan ere bai (indarrez). Hirigintzarekin erabat lotuta, azpiegiturekin erabat lotuta dago, eta auzoaren biziberritzearekin, ez? Auzoa populazio aldetik altu xamarra baldin bada, logikoa da ere, horrelako azpiegitura bat planteatuta, arrakasta izatea. Baina bai, batez ere, proiektu hauetan hirigintza, aisialdia ere asko ikutzen da... eta AMIFEren kasuan, hirigintzarekin ere erabat lotua dago. Asoziatibaa hori, ez? Bada, ezinduen ibilbideak eta garbitzeraa edo... hori ez? Ezinduen bizibaldintzak hobetzeko, ez? Planteatuak daude” (Z2, 2019; Zinegotzia).

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

Instituzioari erreparatuz, agente teknikoaren eta proiektuen aurkezleen profila bat egiten dutela jakinda, instituziora agente dominatzaileen eskaerak iristea eragiten dute Dominazio Matrizearen ardatzek.

Azkenik, marko kontzeptuarean azaldu den moduan, dominazioak eta erresistentziak esparru berean kohexistitzen dira. Hala izanik, proiektuen aurkezle modura zenbait agenteren erresistentzia ikus daitezke. Adinari dagokionez, bi gizon 16 eta 30 urte artekoak proiektuak aurkeztu dituzte, eta beste sei 61 urtetik gorakoak. Bestalde, gizon etorkin batek ere parte hartu izan du proiektu-aurkezle modura. Hauetatik batek ere ez du irabazi.

Bestetik, jakinda, proiektu aurkezle bezala, gizonen kopuruan emakumeak bikoizten dituztela, 13 emakume identifikatu daitezke erresistentzia modura. Batez ere, 46 eta 60 arteko taldea, dominatuagoa izanik, soilik 3 aurkezle egon dira. 31 eta 45 urteen artean, aldiz, 10, hauetatik hiruk irabazi dute.

## 5. ONDORIOAK

Atal honetan ikerlan honen hipotesiak baieztatuko edo ezeztatuko dira; horretarako, froga enpirikoak bildutako informazioa, analisirako erabili dena, kontuan hartuko da. Lehenengo hipotesiak honela dio: **interseksionalitatea bazterketa guztiak identifikatzeko eta hauen konplexutasuna ulertzeko tresna baliagarria da.**

Arestian, botere-harremanek dominatuen ikuspuntuak isilarazten dituztela azaldu da: “Bazterketa honek, aldi berean, arazoaren konponbide eraginkorra mugatzen du, arazo sozialengatik kaltetuen dauden pertsonen ikuskerak isilarazten direlako” (Collins, 2017: 23).

Beraz, bazterketa jasaten duten pertsonen ikuskerak isilarazten badira, pertsona hauek zein diren eta zein bazterketa jasaten duten identifikatzea zaila izan daiteke. Hortaz, bazterketa ezberdinak identifikatzeko, eta hauen atzean dauden agente sozial ezberdinak identifikatzeko, tresna bat behar da. Horren harira, interseksionalitatea tresna gisa ulertuta, hauetako puntu bat edo gehiagorekin lotzen dela azaldu da:

“1- Arrazakeria, sexismoa, klase esplotazioa eta antzeko zapalkuntza-sistemak elkarri konektatuak daude eta elkar eraikitzen dira.

2- Desberdintasun sozialen konfigurazioak zapalkuntzen testuinguruan osatzen dira.

3- Arazo sozialen ikuskerek, aktore sozialak, testuinguru historiko eta sozial zehatzen botere-harremanen barruan kokatuak daudela islatzen dute

4-Zapalkuntzen intersekzioan, norbanakoak eta taldeak, modu ezberdinean kokatuak daude. Fenomeno sozialen inguruan, ikuspuntu bereizgarriak dituzte” (Collins eta Bilge 2016:25-30; hemen aipatuta: Patricia Hill Collins, 2017:20).

Lehenengo puntua erreferentziatzat hartuta, zapalkuntzak, eta hauek eragiten dituzten bazterketak elkarri lotuta daudela ulertzen da. Ondorioz, ezin dira bazterketa horiek modu isolatuan jardungo balute bezala ulertu. Zapalkuntza guztien konplexutasuna ulertzeko, intersekzioan aritzen direla ulertu behar da.

Zinegotziak, agente baztertu moduan, edo dispositiboan falta den ahots gisa, gazteak identifikatzen ditu:

“nik faltan bota izan dudana batez ere gazteek proposatutako proiekturen bat. Egia da, urteren batean proposatu zituztela... edo proposatu zutela halako kontzertu ziklo bat edo... egitea bada dinamikarik edo etzegoen garaian, adibidez, negu batean edo horrelako zerbait. Baina egia da oso bozka gutxi atera zituela, eta bozka gutxi atera zituen gazte jendeak etzuelako parte hartu bozketan” (Z2, 2019; Zinegotzia).

Zinegotziak soilik gazteak identifikatu ditu, baina ez du interseksionalitatearen tresna erabili, gazte izatearen zapalkuntza, Lizarrako testuinguruan, zein beste zapalkuntzarekin intersekzioan aritu daitekeen jakiteko. Ikerlan honetan, interseksionalitatea tresna gisa erabilia, jakin da, soilik bi proiektu aurkeztu dituztela gazteek, eta bi gazte horiek gizonak, zuriak eta heterosexualak direla jakin izan da. Bestalde, modu pasiboago batean parte hartzeko, bozketan, hain zuzen ere; gazteek soilik %7,5 izan dira, eta horietatik %66,7 emakumeak, eta %33,3 gizonak. Ondorioz, lehenengo hipotesia baieztatutzat emango da.

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

Bigarren hipotesiari erreparatuz, honela dio: **Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan parte hartzen duten agente dominatzaileen artean, genero, arraza, adin eta orientazio sexual bat nagusitzen da. Gizon, zuri, adin ertainekoa eta heterosexuala dena.**

Hasteko, Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan parte hartzeko modurik aktiboena proiektuak aurkeztea da. Proiektu aurkezle modura aritu direnen artean, 41 norbanako izan dira. Horietatik 28 gizonezkoak dira, eta soilik 13 emakumezkoak. Ondorioz, agente dominatzailea gizona da. Arrazari dagokionez, 41 pertsonetatik, bakarra etorkina da, gizona dena. Beraz, arraza dominantea ere badago, zuria izatea. Adinari erreparatuz, soilik 6 pertsona 61 urte edo gehiago dituzte, eta soilik 2 16 eta 30 urte artean; denak gizonak. Beraz, adin-tarte dominantea ere badago: 31 eta 60 artean. Honen barne, 31 eta 45 arteko adin-tarte nagusitzen da. Talde dominatzaile honetan ere, emakume gehienak biltzen dira: 10; gizonak, berriz, 12. Bestalde 46 eta 60 urteen artean soilik 3 emakume daude, eta 8 gizon.

Proiektuen aurkezleen orientazio sexualari dagokionez, ezin da zehaztasunez esan; hala ere, zinegotziaren hitzetan: “proposamenetan parte hartu duena? Bada ez dakit, bada... 40-50 urte tartean, gizona izan daiteke, eta pentsatzen dut heterosexuala, gehiengo behintzat” (Z2, 2019; Zinegotzia). Beraz, orientazio sexual dominantea heterosexuala dela ondorioztatuko da. Hortaz, bigarren hipotesi hau ere baieztatutzat eman daiteke.

Hirugarren hipotesiak honakoa dio: **Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak zuzentzen dituen agente teknikoak, Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan parte hartzen duten agente dominatzaileekin kokapen soziala (generoa, arraza, adina eta orientazio sexuala) konpartitzen du.**

Aurreko hipotesian baieztatu da, proiektuak aurkezten dituen agentearen profila gizon, zuri, 31 eta 60, eta batez ere, 31 eta 45 urte artekoa eta heterosexuala dela. Jakinda agente teknikoa gizon, zuri, 40 urte ingurukoa, heterosexuala, kapital kultural handikoa eta klase sozial ertainekoa dela, hipotesia baieztatutzat emango da.

“N: Bueno, nola deskribatuko zenuke zure profila? Bueno generoa baa gizona, ez? O hala identifikatzen zara.

Z2: Bai, bai, oraingoz bai (irribarrez).

N: Arraza, ba bueno, europarra, ez? Edo zuria?

Z2: Bai, bueno... (ez dio kezkarik sortzen).

N: Orientazio sexuala... ba heterosexuala, ez?

Z2: Ajam (baieztatuz).

N: eta gero kapital kulturala, bueno ee hezkuntza maila, bada, altua ez? Esango genuke... Unibertsitatean ikasi duzu...

Z2: bai, unibertsitatean lizentziatua naiz, bai (Euskal Filologia ikasi du).

N: etaa... klase soziala baa... ertaina? Edo gaur egun ertain bezala ezagutzen dena?

Z2: ertaina esango genuke, (isiltasuna) (Lizarra Ikastolako irakaslea da eta etxe batean bizi da) langilea (indarrez, langile klasearekin identifikatzen du bere burua)” (Z2, 2019; Zinegotzia).

Jarraitzeko, laugarren hipotesia aztertuko da: **Interseksionalitatearen ikuspegitik aztertzen denez, Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan parte hartzen duten agente dominatuak, aldi berean, agente dominatzaileak direla ikus daiteke.** Bigarren hipotesian



Demokrazia parte hartzailea eta intersektionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

ikusienez, hiru urteetan etorkin bakarrak parte hartu du, gizona da eta 45 eta 60 urte artekoa da. Beraz, dominatua da etorkina delako, baina dominatzailea da gizona delako, eta 31 eta 60 urte arteko adin-tartean dagoelako.

Bestalde, 61 urte baino gehiagoko aurkezleen artean 6 norbanako ditugu, seiak zuriak eta gizonak dira. Hortaz, dominatuak dira adinarengatik, baina dominatzaileak dira, behintzat, arrazarengatik eta generoarengatik. Gauza bera gertatzen da 16 eta 30 urteko bi aurkezleekin. Azkenik, parte hartu duten 13 emakumeak dominatuak dira generoarengatik, baina dominatzaileak dira arrazarengatik eta adinarengatik. Beraz, hipotesi hau ere baieztatuta dago.

Bosgarren hipotesiak, honela dio: **Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan agente dominatuek aurkezten dituzten proiektuak, agente dominatzaileenak baino gehiago, bestelako agente dominatuei zuzenduak izaten dira.** Agente dominatuek aurkeztu dituzten proiektuak, osotara 22 dira. 13 emakumeek aurkeztuak, 6 61 urtetik gorako gizonen, 1 46 eta 60 urteko gizon etorkin batek eta 2 16 eta 30 urte arteko bi gizonen.

22 proiektu horietatik 8 bestelako agente dominatuei zuzenduak dira. Hauek dira: gazte kontsumoen aurkako kanpaina, 5 haur parke gehitzea edota egokitzea eta bi zakur parke jartzea. Bestalde, 31 eta 60 urte arteko gizonen zuriak 19 proiektu aurkeztu dituzte, gainontzekoak, taldeek aurkeztutakoak dira. 19 horietatik, soilik bi hirugarren pertsonen zaintzarako edo bestelako agente dominatuentzat zuzenduak dira. Hauek dira: jolas parkea erabiltzen ez den lekuan jartzea eta Los Llanos kafetegian txikipark bat jartzea. Hala ere, aipatu behar da, agente dominatuen artean, 8 proiektu horietatik, 7 emakumeek aurkeztuak izan direla, eta Zezen plazan haur parkea jartzea gizon etorkinaren proiektua da. Hortaz, ondoriozta daitekeena, emakumeek hirugarren pertsonentzat zuzendutako proiektuak aurkezteko joera handiagoa dutela da. Beraz, hipotesi hau ere baieztatutzat eman daiteke.

Azken hipotesia honako hau da: **Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan gutxiago edota modu pasiboagoan parte hartzen duten agenteak, agente dominatuak dira. Hauek emakumeak, etorkinak, gazteak zein agureak eta heterosexuak ez direnak dira.**

Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan parte hartzeko modurik pasiboena boza ematea da, aktiboena proiektuak aurkeztea edota, taldeen kasuan, beren kabuz antolatzen dituzten asanbladetan parte hartzea da. Boza emaleei dagokienez, gehiengoak emakumeak dira, eta 61 urtetik gorakoak. Izan ere, boza emaleen %58,1 emakumeak dira, eta gizonak, berriz, %41,9; hau da, emakumeak %16,2 gehiago dira. Bestalde 61 urtetik gorakoak %37,9 dira; horien artean, emakumeak %14,8 gehiago dira. Bestalde, 46 eta 60 urte arteko boza emaleak, %26,3 dira, eta emakumeak %12,2 gehiago dira. 31 eta 45 urte artekoen artean, %28,3 dira, eta emakumeak %17,2 gehiago dira. Azkenik, 16 eta 30 urte artekoak soilik %7,5 dira, emakumeak %33,4 gehiago izanik.

Hala ere, proiektuak aurkezten dituzten agenteei erreparatuz, taldeak aparte utzita, 28 gizonak dira, eta 13 emakumeak. Beraz, gizonak emakumeen bikoitza baino gehiago

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

dira. Gainera, 61 urtetik gorakoan artean eta 16 eta 31 urte artekoan artean, ez dago emakumerik. Bestalde, boza emaleen artean 61 urtetik gorakoak gehiengoak izan arren, proiektuen aurkezle modura, hiru urteetan, soilik 6 gizon agertu dira.

Bestalde, boza emale modura, ezin dugu zehaztasunez jakin jendearen jatorria. Baina, ni 2017ko partaidetzazko aurrekontuen bozketarako mahaian izan nintzen, eta ez nuen etorkin bat ere ikusi. Gainera, proiektu aurkezle modura, hiru urteetan bakarra egon da. Halaber, orientazio sexualari dagokionez, proiektu aurkezle modura heterosexualak gehiengo zabala direla badakigu, denak ez badira. Beraz, azken hipotesi hau ere baieztatutzat eman daiteke.

Kasu honetan, 61 urtetik gorakoan egoera, argi eta garbi ikusten da. Izan ere, hauek boza emale modura gehiengoa izanik, proiektuak aurkezteko talde baztertua dira:

“Agian bai hartzen du parte bozketan, heldua esan nahi dut jubilatua. Baina proposatzerako orduan ez dute proposatzen askorik. Hori bai (indarrez), batzordeetan eta horrelako auzo batzordeetan eta, egia da, jende gehiena, jende heldua dela etortzen dena, eta aportatzen du (tinko) eta eskatzen du etab. Baina holako gauza formal bat edo egiteko, nik uste dut agian badutela hor, ez dakit, ez? Zailtasunen bat. Eta hor agian ba bueno, ez dakit... bai bota... ez dakit, atzera botatzen dute aukera hori, ez? Ez dute sartu nahi hor. Nahiz eta erraztasunak jartzen diren (tinko, indarrez, irmo). Azken finean, teknologia berrien bidez, helarazi ditzakete proiektuak, baina paperean idatzita, udaletxean bertan eskaini ere bai. Orduan, ez da biderik eta ez daukatelako (indarrez). Baina ez dakit (baxu, ez daki zergatik ez duten proiekturik aurkezten)” (Z2, 2019; Zinegotzia).

Zinegotziak badaki 61 urtetik gorako agenteek bozketan parte hartzen dutela, baina proiektuak aurkezten ez. Hala ere, ez daki zergatik den, ez du bere kokapenaren hausnarketarik egin, ezta agente dominatzaileen zein dominatuen hausnarketarik egin ere. Hala izanik, berak uste du, parte hartzen ez duen jendea, ez duelako nahi dela.

“poliki-poliki espero dezagun gero eta jende gehiagok parte hartzea, m? Hori da behintzat helburua. Eta batez ere (indarrez), nik uste tresna polita dela lehen aipatu dituzun perfil horiek ere sar daitezkeelako hemen (agente baztertuei erreferentzia eginez”. Azken finean, edozeinek aurkez dezake, edozeinek parte har dezake... baldintza bakarra hemen erroldatua egotea da (erraztasunak daudela adierazi nahian)” (Z2, 2019; Zinegotzia).

Hipotesiekin ateratako ondorioez gain, bestelako zenbait ondorio plazaratu nahi dira. Hasteko, sarreran aipatu den moduan, Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan ez dagoela deliberaziorik aipatu behar da. Taldeek aurkezten dituzten proiektuak prestatzeko, esan bezala, zinegotziaren arabera, asanbladak egiten dituzte, baina Udalak bertan ez du inolako eskumenik. Ondorioz, dispositibo honetan ez dago deliberaziorako esparrurik, eta deliberazioa dagoenean, Udalak ez du eskumenik, eta beraz, ezin du jakin zein den bertako agente dominantea, eta beraz, zein bazterketa jazotzen diren eta nola desaktibatu.

Uste da, erabaki publikoak hartzerako orduan, partaidetzazko agente teknikoak proiektuak aurkezteko egiten diren batzarretan ikuskari lanak egin beharko lituzkeela. Eta bazterketaren bat identifikatzekotan, hori desartikulatzeke esku hartu beharko lukeela.

Aipatu beharreko beste ondorio argi bat modu aktiboago batean agente dominanteak parte hartzen dutela da. Hau da, gizon, zuri, adin ertainekoak eta heterosexualak. Baina,

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

modu pasiboago batean 61 urtetik gorako herritarrak gehiengoa dira, eta adin-tarte guztietan, emakumezkoak gehiago dira. Are gehiago, emakume eta gizonen aldea, bi adin-tarte gazteenetan handitzen da. Hemendik, ondoriozta genezake, Lizarrako agente dominatuak parte hartu nahi dutela; behintzat heldutasunari eta generoari dagokionez. Baina, antzeman daiteke, proiektuak aurkezterako orduan, oztoporen batekin aurkitzen direla. Pentsa daiteke ez direla gai sentitzen proiektuak aurkezteko.

Bestetik, proiektu irabazleei arreta jartzen bazaie, hiru urteetan 12 proiektu irabazi dute, lau urte bakoitzeko; horietatik 8 talderen batek aurkeztutakoa da. Gainera, 8 horietatik 3 San Migel Auzo elkarteak eta beste 3 AMIFE-k irabazitakoak dira (urtero bana). Ondorioz, arrakasta handiena dutenak taldeak dira, beren mobilizaziorako gaitasunarengatik, alegia. Gainera, partaidetzazko aurrekontuek izaera lehiakorra dutela ere ondoriozta daiteke. Izan ere, ikusienez, San Migel eta AMIFE elkarteak urtero irabazi dute, eta urtero aurkeztu dira ere. Bestalde, 16 eta 30 urte arteko bi gizonen proiektuak lehenengo urtean izan ziren, hurrengo urteetan ez da adin-tarte horretako proiekturik egon. Izan ere, hauek ez zuten irabazi, zinegotziak esan bezala, gazteek bozkatzeko ez dutelako. “Baino egia da oso bozka gutxi atera zituela, eta bozka gutxi atera zituen ba gazte jendeak etzuelako parte hartu bozketan” (Z2, 2019; Zinegotzia). Ondorioz, agente dominatuak, are dominatuagoak egongo dira prozesu parte hartzaile honen ostean. Izan ere, izaera lehiakorreko dispositibo honetan lekurik ez duenarentzat ez dago beste biderik. Bestalde, taldeen kapital sinbolikoa handia da, beren mobilizaziorako gaitasunean islatzen da, eta hori, dispositiboaren emaitzetan.

Halaber, agente teknikoak hausnarketa sakonagoa egiteko aukera izan beharko lukeela uste da. Izan ere, zenbait kasutan ikusi den moduan, berak uste du parte hartzen ez duen agentea, ez duelako nahi dela. Baina, 61 urtetik gorakoen kasuan ikusi da oztopo bat aurkitu dutela proposamenak aurkezteko. Gauza bera gertatu da emakumeekin eta gazteekin. Ondorioz, dominazio ardatzen eta jazotzen diren bazterketen hausnarketa egitea beharrezkoa ikusten da, hauek desaktibatu ahal izateko.

Azkenik, boza emaleen kapital kulturala eta klase soziala ezin da jakin, baina jakinda, gehien parte hartzen duen herritarra 61 urtetik gorakoa dela, eta gero honek proiektuak aurkezten ez dituela; ondoriozta daiteke kapital kultural baxuko jendea modu pasiboagoan parte hartzen duela. Beraz, litekeena da, klase sozial baxuko jendea ere, parte hartzen duenean, gehienetan, soilik boza emale modura parte hartzea. Modu berean, agente teknikoak parte hartzen duten agente sozialekin, generoan, arrazan eta orientazio sexualean botere esparrua konpartitzen duela ikusi da. Beraz, kapital kulturean eta klase sozialean ere konpartitzen duela pentsa daiteke. Hala ere, esan bezala, ezin da zehaztasunez jakin. Horregatik, etorkizunean egin daitekeen ikerketan bi alderdi hauek aztertuko dira.

## 6. PROPOSAMENA

Zintzotasunez baloratzeko, argi izan behar da Partaidetzako zinegotzia ez dela agente teknikoa. Baina berak, zinegotziaren paperaz gain, agente teknikoarena ere hartu behar du, sailak teknikaririk ez duelako. Ondorioz, ez da dispositiboaren diagnostia egin, ezta balorazioa ere. Hala izanik, ezin izan dituzte bazterketak identifikatu. Horregatik, apaltasun osoz, hurrengo legegintzaldiari begira, proposamen bat eskaini nahi diot Lizarrako udalari.

### 9.Taula. 8+3 Formula Lizarrarako proposamen gisa

#### **1. Zergatik egingo dugu partaidetza-prozesua?**

Lizarrako partaidetzazko aurrekontuen diagnostia egin ostean, zenbait agente baztertuak direla ikusi delako. Hauek lirateke: emakumeak, etorkinak, adin nagusikoak, gazteak eta heterosexualak ez direnak.

#### **2. Zertarako?**

Agente baztertuak barne-hartzeko dispositiboa abian jarri nahi da, Lizarrako partaidetzazko aurrekontuetan ordezkaritzarik gabe geratzen diren agenteei bozgoragailua emateko. Instituzio publikotik abiatzen diren prozesu parte hartzaileak barne-hartzaileak izan behar dutelako.

#### **3. Nortzuk?**

Proposamena hurrengo legegintzaldiari begira izango da, beraz, jakinda Partaidetza saila egoera prekario batean dagoela, generoaren, arrazaren, adinaren eta heterosexualitatearen dominazioak desaktibatzeke proposamena izango da.

Emakumeekin lan egingo da, udalak, dagoeneko, Lizarrako Mugimendu Feministarekin harremana du, lan hori errazagoa izango da, beraz. Kontuan izan beharreko aldagaia Lizarrako Mugimendu Feministarekin hurrengoa da: talde asko daude, haien artean heterogeneoak dira, eta talde barnean homogeneoak. Biderik aproposena talde bakoitzarekin harremanetan jartzea izango da. Ezin da ahaztu mugimenduaren barruan etorkin talde bat eta ijito talde bat daudela. Horiek ordezkaritza izan behar dute prozesu parte hartzaile honetan; beraz, arreta berezia jarriko zaie. Hauek dira taldeak:

- Lizarraldeko Bilgune Feminista.
- Patriaorcardo-Patriaorkatu.
- Amilips.
- Juntas y revueltas.
- Asamblea de Mujeres.
- Mujeres gitanas.

Horretaz gain, antolatutak ez dauden emakume guztiei ere gonbitea egingo zaie. Bestalde, adinaren auziari arreta jarriko zaio, 61 urtetik gorako helduei eta 16 eta 31 urte arteko gazteei, hain zuzen ere. Helduen artean, auzo batzordeetan parte hartzen dutenekin, zein partaidetzazko aurrekontuetan boza ematera joan direla identifikatzen direnekin hitz egingo da. Horretaz gain, Lizarrako jubilatuen eta pentsionisten elkarrekin hitz egingo da, eta antolaturik ez dauden helduei ere parte hartzeko gonbitea luzatuko zaie. Bestetik, gazteei dagokienez, antolaturik ez dagoen edozein gazteri gonbitea egingo zaio. Horretaz

gain, talde hauekin harremandu beharko da Udala:

- Sugarra Gaztetxea.
- Ernai.
- Lizarrako Txabiskeak.
- Kinta.
- Lizarrako Festa Giro.
- Alderdietako gazteriak.
- Kirol taldeak.

Etorkinei dagokienez, *Lizarra harrera hiria* elkartearekin harremanetan jarri beharko da Udala. Elkarte Udalaren eta etorkinen artean bitartekaria izango da, hauen parte hartzea errazteko. Izan ere, legez kanpo dauden horiek parte hartzeko zailtasun handiagoak izango dituzte. Bestalde, legez onartuak dauden horiekin harremana hastea Udalaren lana izango da. Hauen dendetara joanez, atez ateko loturak eginez...

Azkenik, Udala LGTBIQ+ den jendearekin harremanetan jarri beharko da; horretarako, Mugimendu Feministarekin harremanetan jartzea aproposa litzake, bitartekaritza lanak egin ahalko litzukeelako. Bestalde, Lizarran badaude zenbait pertsona "erreferentetzat" har ditzakegunak, kolektiboaren parte direlako eta publiko egin dutelako. Pertsona horiekin harremanetan jartzea ezinbestekoa izango da; hauek ere bitartekaritza lanak egin ahalko dituzte beste batzuekin.

#### **4. Nolako arauak?**

-Aldatu ezin diren arauak:

- Errespetuz hitz egin.
- Txandak errespetatu.
- Denbora guztiona da. Modu orekatu batean hitz egiteko denbora banatzen saiatu.

-Aldatu daitezkeen arauak:

- Mundu guztiak hitz egin arte, ez zaio inori bigarren aldiz hitza emango (norbaitek hitz egin nahi ez izatekotan, araua aldatuko da).
- Lizarrako mapa linguistikoa ezagututa, hizkuntza nagusia gaztelera izango da, baina norbaitek beste hizkuntza batean hitz egin nahi badu, itzulpena egingo da. (Beharrezkoa bada, hizkuntzaren arabera egingo dira taldeak).

-Prozesuaren muga teknikoak:

- Udalak ez du partaidetzako teknikaririk, beraz, kontsultoria batekin harremanetan jarri beharko da, bere lanak kontratatuzko.
- Zinegotziak teknikari lanak egiten ditu, horregatik, formakuntza emango zaio.

-Prozesuaren muga ekonomikoak:

- 200.000€-ko aurrekontua izango da. Horrekin, kontsultoriari ordainduko zaio, zinegotziari formakuntza emango zaio eta guneren bat alokatu behar bada ere, horrekin egingo da. Gastu gehiago egongo dira, geroago, aurrekontuan azalduko direnak

-Eztabaidagaiaren edukia:

Bost eztabaida talde egingo dira: bat gazteekin, beste bat agureekin, beste bat etorkinekin, beste bat LGTBIQ+ direnekin eta beste bat emakumeekin. Hala ere, talde bakoitzean aniztasuna bermatu nahi da. Hau da, gazteen taldean genero aldetik,

orientazio eta identitate sexual aldetik eta jatorri aldetik aniztasuna bermatu nahi da. Gauza bera, gainontzeko talde guztietan. Amaitzeko, prozesuan parte hartu duten guztiekin batzar orokor bat egingo da.

- Eztabaida taldeak agente baztertu horiek Lizarran dituzten beharrez jardungo dira.
- Azken batzar orokor horretan, agente dominatuen artean kontsentsu eta kohesio bat bilatzen saiatuko gara. Horretaz gain, agenteen balorazioa ere jakin nahi da.

-Prozesuen emaitzekin hartutako konpormezua:

- Udalak herritar hauen partaidetzarekin, behar horiei erantzuna eman beharko die.

### **5. Nola?**

1. Kokapen politiko eta metodologikoa: aurreko puntuetan azaldutakoa parte hartzaileei adieraziko zaie.
2. Zenbait ikuspegitatik egindako azterketa: zer dagoen eta nola dagoen ikerlan honetan ikusi dena da. Orain, ordezkaritza ez duten agenteei hitza emango zaie, eta haien artean harremanduko dira.
3. Eztabaida: eztabaida talde bakoitzetik ateratako ondorioak, batzar orokorrean azalduko dira. Berotzeko dinamika baten bidez, 8-10 pertsonetako taldeak osatuko dira. Bertan, ikuspegi anitzak egongo dira, bakoitzak taldeetan ateratako ondorioak nola ikusten dituen azaldu beharko du. Horretaz gain, ondorioen arabera gidoi bat izango du dinamizatzaileak, eztabaida gidatzeko eta sustatzeko helburuarekin. Gero, talde bakoitzean emandako kontsentsuak azalduko dira eta talde handian eztabaidatuko dira.
4. Jarduketa-proposamenak: talde bakoitzak bere taldeko bi arduradun aukeratuko ditu, soziokraziaren bidez. Horiek hurrengo batzar batean elkartuko dira helburu komunak zehazteko, eta beren taldeari azaldu beharko dizkiete.
5. Erabakiak hartzeko prozesua: aukeratutako talde bakoitzeko bi arduradun horiekin elkartuko gara, eta hauek izango dira helburu horiek betetzeko aurrera eraman beharreko ekintzak zein diren zehaztuko dituztenak.
6. Itzulera: prozesuan parte hartu duten herritar guztiak bilduko dira, erabakitakoa azalduko zaie. Bertan, proposamen berriak, eragozpenak egin ostean, kontsentsu zabala eta kohesioa espero dira.
7. Ekintzen ezarpena: Udalaren eta herritarren artean harreman estua mantendu beharko da, ekintza horiek aurrera eramateko. Horretarako, derrigorrezkoa izango da hileroko batzar bat antolatzea, ekintzen prozedura nola doan azaltzeko eta balorazioa eta jarraipena konpartitua izateko.
8. Saioak zuzenekoak izango dira, 2020ko Udan antolatuko dira eta Lizarra frontoian egingo dira. Saioak ekinetik irailera izango dira. Harremanak momentu oro zainduko dira, horregatik, berotzeko dinamikak egiteaz gain, lehenengo batzarrean herri bazkaria egingo da.

### **6. Noiz?**

Esan bezala, udan izango da, Lizarrako gazte asko, urtean zehar kanpoan bizi baitira. Bestalde, batzarren ordua eta eguna partaideekin zehazten saiatuko gara. Uste da, arrakasta handien izan dezakeen data larunbatean 11:00etatik 14:00etara dela. Inola ere ez da saio bakoitza hiru orduetatik pasako; beti hasiera eta amaiera orduak zehaztuko dira.

### **7. Non?**

Printzipioz, Lizarra Frontoia proposatuko zaie herritarrei, eragozpenik ez badute bertan egingo da. Lizarrako erdingunean dago, eta leku zabala da. Hala ere, beste irtenbide bat Sugarra Gaztetxea izan daiteke, beren baimenarekin, noski.

Lizarra Frontoia Lizarrako herritarrek aski ezagutzen dute. Hala ere, Gazteriaren Etxe ondoan dagoela azalduko da, Berri tabernaren aldaparen igoeraren amaieran.

### **8. Nolako baliabideak?**

-Pertsonalak:

- Taldeak kontratatutako adituek dinamizatuko dituzte, talde hauetan sortzen diren dominazioak desartikulatzen saiatzeko helburuarekin.
- Udala prozesu osoaren gidaria eta ikuskaria izango da, taldeek aukeratutako arduradunekin batera.
- Adin txikikoak zaintzeko Udaleko zerbitzuak.
- Itzulpengintza.

-Materialak:

- Lizarra Frontoia.
- Boligrafoak eta paperak.
- Udaleko aulkiak.
- Lizarrako Festa Giro-ri mikrofonoa eta bozgoragailua eskatuko zaio.
- Grabagailua.

-Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak:

- Nahiago duenari e-postaz helaraziko zaio, eta nahiago duenari etxera gutuna bidaliko zaio.
- Mundu guztiari telefonoz deituko zaio, ez badu, etxeko txirrina joko zaio beharrezkoa bada.

-Aurrekontu ekonomikoa: 200.000€-koa izango da.

- Kontsultoriaren kontratazioa.
- Lekua.
- Lan egiteko materialak (boligrafoak, pepera...).
- Grabagailua.
- Itzulengintza.
- Adin txikikoen zaintza.
- Eskutitzak.

-Denbora:

- Bost eztabaida taldeak 2020ko ekainean egingo dira.
- Hurrengo batzarrak uztailan eta irailean izango dira.
- Jarraipen batzordeak hilero egingo dira helburuak bete arte. Hori kontsultoriaren eta itzulpengintzaren zerbitzurik gabe egingo da.

### **1. Informazioa eta komunikazioa**

-Lehenengo maila:

- Prozesuan modu zuzenean parte hartzen ari ez den herritar oro Udalera joan daiteke informazio eske.

-Bigarren maila:

- Prozesuan modu zuzenean parte hartzen ari diren herritar guztiek, batzar

orokorretan, galderen eta oharren txokoa izango dute. Bertan, modu publikoan esatera ausartu ez direna esateko edota idazteko esparrua izango da.

-Hirugarren maila:

- Jarraipena egiteaz arduratuko direnei, bai e-postaz edo eskutitez bai beraiekin egingo den informazio bilera batean, prozesu guztiaren irizpideen berri emango zaie.

## **2. Jarraipena eta ebaluazioa**

Batzar bakoitzaren amaieran, balorazio-orri bat pasatuko zaie parte hartzaileei, bertan hurrengoa baloratuko da (1-10 eskalan):

- Eraitza bereziak: proposamenak, konpromisoak, helburuen lorpena.
- Prozesua: ekintzak, partaideen kopurua, proposamen kopurua...
- Gai ukiezinak: sortutako harremanak, trebakuntzak, pertzezioak...

Ondoren, talde handian hitz egingo da.

## **3. Konpromisoak**

- Izendatutako arduradunek, egokitutako kargua onartu behar dute. Horrek, helburuak zehazteko, ekintzak erabakitzeko eta jarraipenerako egingo diren batzordeetara bertaratzera behartzen ditu.
- Udalak eta herritarrek harremana jarraitzeko konpromezua hartu behar dute.
- Udalak, helburuak bete arte, aurrera jarraituko dela bermatu behar du.
- Partaidetza-prozesu honek, hezkuntza-prozesua izateko konpromezua hartu behar du. Boterearen banaketaz eta elkarbanaketaz lortutako herritarren ahalduntzea ez galtzeko.

Iturria: egileak berak eginikoa. Datuak: EUDEL.



Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

## 7. BIBLIOGRAFIA

Ajangiz, Rafael eta Blas, Asier (2008). *Mapa de experiencias de participación ciudadana en los municipios del País Vasco*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.

Bourdieu Pierre (1986). "Educational Transmission and Reproduction: The Forms of Capital" J. E. Richardson, *Handbook of Theory and Research for the Sociology of Education*. New Yorken: Greenwood. (241-258).

\_\_\_ (1993). "Espíritus de Estado. Génesis y estructura del campo burocrático". *Actes de la Recherche en Sciences Sociales*, 96-97, 49-62.

Calle Mayor (2016). "100.000 euros para desfibriladores, mejoras urbanas y de accesibilidad y baños públicos". Calle Mayor [On-line] 589, 8-9, eskuragarri hemen: <http://www.revistacallemayor.es/documentos/revistas/589.pdf> [Kontsulta eguna: 2019/3/26].

Calle Mayor (2017). "San Miguel, Amife y espacios de juegos, los proyectos elegidos por los estelenses". Calle Mayor [On-line] 612, 8, eskuragarri hemen: <http://www.revistacallemayor.es/documentos/revistas/612.pdf> [Kontsulta eguna: 2019/3/26].

Calle Mayor (2018). "23 proyectos optan a los 100.000€ de los Presupuestos Participativos". Calle Mayor [On-line] 637, 8-9, eskuragarri hemen: <http://www.revistacallemayor.es/documentos/revistas/637.pdf> [Kontsulta eguna: 2019/3/26].

Cubillos, Javiera (2015). "La importancia de la interseccionalidad para la investigación feminista". *Oximora. Revista Internacional de ética y política* [On-line] 7, 119-137, eskuragarri hemen: <http://revistes.ub.edu/index.php/oximora/article/viewFile/14502/17834> [Kontsulta eguna: 2019/4/5].

Della Porta, Donatella (2018). *Democracias. Participación, deliberación y movimientos sociales*. Buenos Airesen: Prometeo.

EUDEL (2009). "¿Cómo realizar un proceso participativo de calidad?" [On-line] eskuragarri hemen: [https://egela1819.ehu.eus/pluginfile.php/1634047/mod\\_resource/content/1/Partaidetza%20prozesuen%20diseinua%20.pdf](https://egela1819.ehu.eus/pluginfile.php/1634047/mod_resource/content/1/Partaidetza%20prozesuen%20diseinua%20.pdf) [Kontsulta eguna: 2019/5/6].

Hill Collins, Patricia et al. (1995). "SYMPOSIUM. On West and Fenstermaker's "Doing Difference"". *Gender & Society*, 9 (4), 491-513.

\_\_\_ (2017). "The Difference That Power Makes: Intersectionality and Participatory Democracy", *Investigaciones Feministas aldizkarian* 8 (1), 19-39.

Demokrazia parte hartzailea eta interseksionalitatea: Lizarrako partaidetzazko aurrekontuak aztergai

Juaristi, Patxi (2003). "Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak", *EHU [On-line]*, eskuragarri hemen: <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/USWEB035407.pdf> [Kontsulta eguna: 2019/4/5].

Lizarrako Udala (2019). "Estella-Lizarrako Udala. Udal antolaketa", *Estella-Lizarrako Udala [On-line]*, eskuragarri hemen: <http://www.estella-lizarra.com/eu/ayuntamiento/organizacion/> [Kontsulta eguna: 2019/4/3].

Martínez-Palacios, Jone (2017a). "Reflexionar sobre la dominación. El uso de las teorías generales para el diseño de los procedimientos de profundización democrática", Jone Martínez-Palacios (koord.) *Participar desde los feminismos: ausencias, expulsiones y resistencias*. Bartzelonan: ICARIA (66-109).

\_\_\_ (2017b). "Exclusión, profundización democrática e interseccionalidad", *Investigaciones Feministas aldizkarian* 8 (1), 53-71.

\_\_\_ (2019). "Estudiar la institucionalización de la participación ciudadana en España (1978-2017). Epistemología, teorías, metodología y material empírico de una investigación", Jone Martínez-Palacios. *El giro participativo neoliberal. Institucionalización y profesionalización de la participación ciudadana en España (1978-2017)*. Zorroza: argitaratu gabeko eskuizkribua.

Ragin, Charles C. (2007). *La construcción de la investigación social: introducción a los métodos y su diversidad*. Bogota: Siglo del Hombre.